


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

EUSKARAREN EGOERA UEMAko IKASTETXE BATEAN

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Agirregabiria Badiola, Naia

ZUZENDARIA: Gartziarena San Policarpo, Mikel

HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATEA

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2021/2022 IKASTURTEA

LABURPENA

Hezkuntza eta euskara. Argi dago bi kontzeptu ezberdin direla, bakoitzak bere esanahi eta ezaugarriak baititu. Baina, biak izan dira betidanik aztertuak bai soziolinguistikaren eta baita euskalgintzaren esparruan ere. Beraz, badute zerbait komunean. Hori horrela, kontzeptu horiek, eztabaida ugari ekarri izan dizkigute gure gizartera; izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoan, hezkuntza eta euskara batera baitoaz. Hori horrela izatea, gaur egun, alde batetik, hezkuntzak euskalduna izan behar duela usteak egiten du, baina beste alde batetik, haurrek euskara ardatz izanik, elebidun edota eleanitz izateko helburuak ere eragina du, geroz eta garrantzia handiagoa baitu eleaniztasunak. Alabaina, egoera batzuetan, arrazoi ezberdinak medio, euskararen trataera ez da uste bezain ona; agian, kalitatea ez da eskatzen den mailara iristen ez irakasleen aldetik, ezta haurren aldetik ere. Edota agian, gaztelera bezalako hizkuntza handi baten eragina nabaria da, euskara ia guztiz zapalduz. Kezka eta zalantza horiek guztiak alde batera uzteko eta aurrean dugun errealitateari ateak irekitzeko, Practicum III-a erabili da. Bertan, alde batetik, behaketa etengabea oinarri izanik, aldez aurretik zehaztutako ikerketa-helburuak ardatz, datuak bildu eta emaitzak idatzi dira. Hala, ikuspegi kualitatiboa erabili da ikerketa-galderei erantzuteko, klase-behaketak eta zentroko bi irakaslerekin nahiz zuzendariarekin elkarrizketak oinarri.

Ateratako datu edota ideia anitzak ardatz izaki, hizkuntza aniztasunaren aldeko jarrerak defendatzen dira nagusiki; euskararekiko sentsibilizazio, afektu eta motibazioa bidelagun delarik. Aitzitik, beste behin ere, zaindu beharreko zerbait dela ondorioztatu da, desagerraraztea egiten duten ekintzak alboratzen dituenak. Etorkizunari begira jarriz ongi legoke ikerketa hau berregitea; elkarrizketa pertsona gehiagorengana zabaldu (irakasle zein familia), eta ikerketa bera egitea; hain zuzen ere, helburu nagusienetako bat euskararen egoera aztertzea izanik, honen bilakaeraren jarraipen bat egiteak datu eguneratu eta interesgarri anitz ekarriko lituzke.

RESUMEN

Educación y euskera. Es evidente que se trata de dos conceptos distintos, ya que cada uno tiene su significado y características. Pero ambos han sido siempre estudiados tanto en el ámbito de la sociolingüística como en el de la actividad cultural vasca. Así que tienen algo en común. En este sentido, estos conceptos nos han traído muchas controversias a nuestra sociedad, ya que en la Comunidad Autónoma Vasca la educación y el euskera van de la mano.

Que esto sea así, es por diferentes razones, porque por un lado, tenemos la creencia de que la educación debe ser vasca, pero por otro lado también, influye el hecho de que los niños y niñas, sean bilingües o plurilingües, ya que cada vez es más importante el plurilingüismo. Sin embargo, hay situaciones en las que, por diferentes razones, el tratamiento del euskera no es tan bueno como se piensa, quizás la calidad no alcanza el nivel requerido ni por parte del profesorado ni por parte de los niños. O quizá sea evidente la influencia de una gran lengua como el castellano, pudiendo ejercer influencia sobre el euskera. Para dejar de lado todas estas inquietudes y dudas y abrir las puertas a la realidad que tenemos por delante, se ha utilizado el Practicum III. En él, por un lado, se han recogido datos para la elaboración de los resultados a partir de la observación permanente, centradas en objetivos de investigación previamente definidos. Así, para responder a estas preguntas de investigación, se ha utilizado la metodología cualitativa, basándose en la observación en clase y entrevistas con dos miembros del profesorado y el director del centro.

Centrados en los múltiples datos y/o ideas extraídas, se defienden principalmente actitudes a favor de la diversidad lingüística, acompañando la sensibilización, el afecto y la motivación hacia el euskera. Por el contrario, una vez más se ha llegado a la conclusión de que es algo que hay que cuidar, obviando las acciones que llevan a cabo su erradicación. Con la mirada puesta en el futuro, estaría bien rehacer esta investigación; abrir la entrevista a un mayor número de personas (profesores y familias) y realizar la misma investigación, ya que uno de los objetivos principales sería analizar la situación del euskera, por lo que realizar un seguimiento de su evolución aportaría muchos datos actualizados e interesantes.

ABSTRACT

Education and Basque. It is clear that these are two different concepts, since each has its own meaning and characteristics. But both have always been studied both in the field of sociolinguistics and in the field of Basque cultural activity. So, they have something in common. In this sense, these concepts have brought us many controversies in our society, since in the Basque Autonomous Community education and Basque go hand in hand. That this is so, nowadays is done on the one hand by the belief that education has to be *Euskaldun*, but on the other hand it is also influenced by the objective that children, centered on *Euskara*, should be bilingual or multilingual, as multilingualism is becoming more and more important. However, there are situations in which, for different reasons, the treatment of the Basque language is not as good as it is thought, perhaps the quality does not reach the required level neither by the teachers nor by the children. Or perhaps the influence of a *giant* language such as Spanish is evident, almost completely stepping on the Basque language. In order to put aside all these

concerns and doubts and open the doors to the reality that lies ahead of us, Practicum III has been used for research reasons. Therefore, data and appropriate answers have been collected from continuous observation, focused on previously defined research objectives. Thus, to answer these research questions, a qualitative research design has been used, based on classroom observations and interviews with two teachers and the school principal.

Focused on the multiple data and/or ideas extracted, attitudes in favor of linguistic diversity are mainly defended, accompanying awareness, affection and motivation towards the Basque language. On the contrary, once again the conclusion has been reached that it is something to be taken care of, obviating the actions that lead to its eradication. Looking ahead, it would be good to redo this research; open the interview to a greater number of people (teachers and families) and carry out the same research, since one of the main objectives would be to analyze the situation of the Basque language, so that monitoring its evolution would provide many updated and interesting data.

Gradu amaierako lana. Arabako Hezkuntza eta Kirol fakultatea.

1. AURKIBIDEA	
2. SARRERA	6
3. JUSTIFIKAZIOA	8
4. MARKO TEORIKOA	9
4.1 SOZIOLINGUISTIKA	9
4.1.1 Munduko hizkuntzak:	10
4.1.2 Hizkuntza gutxituak	12
4.1.3 Hizkuntza ukipena	15
4.1.4 Hizkuntza diglosia	16
4.2 EUSKARA HEZKUNTZAN	19
4.2.1 Euskal Hezkuntza Sistema	19
4.2.2. Murgiltze eta mantentze programak	21
4.3 GARAPEN IRAUNKORREKO HELBURUAK	23
5. METODOLOGIA	25
5.1. HELBURUAK	25
5.2 IKERKETA-INSTRUMENTUAK	25
5.3 PARTEHARTZAILEAK	26
5.4 PROZEDURA	27
6. EMAITZAK	28
7. EZTABAIDA ETA ONDORIOAK	35
8. MUGAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK	39
9. ERREFERENTZIAK	40
ERANSKINAK	45

2. SARRERA

Euskara, gaztelaniarekin batera Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofiziala den heinean, gure jendartean etengabeko hausnarketa eskatzen duen gai bat da, bereziki bere etorkizunaz ari bagara. Izan ere, beste hainbat hizkuntzekin gertatzen den bezala, euskararen etorkizunari dagokionez ere, kezka handiak plazaratzen dira gaur egun. Kezka handi horiei erantzunak eman nahian, gure gizartea, etengabe ari da neurketak, ikerketak, emaitzen inguruko azterketak eta abarrak egiten. Izan ere, euskara, hizkuntza minorizatua izanik, nazioarteko hizkuntza minorizatuari gertatu bezala, etengabe behar du arreta berezia eta hauspoa.

Bestalde, hezkuntzari dagokionez ere, asko dira egindako hausnarketa, hipotesi, azterketa, ikerketa eta abarrak. Izan ere, gaur egungo gizartea berrantolaketa etengabean diharduen gizartea da, eta eraldatze horretan, besteak beste, edukiak, metodologia eta hezkuntza-eredu ezberdinak, ikasle-irakasle profil ezberdinak bezalako gaiak plazaratu ohi izan dira. Baina, eremu askotan gertatzen den bezala, hezkuntzan ere, ia inoiz edota oso gutxitan plazaratzen diren gaiak daude, nahiz eta pixkanaka leku gehiago izan hauek ere. Gai horiek baztertzean, behar duten garrantzia ezabatzen zaie, eta euskara, horietako bat denez, lan honetan, bi gaiak elkarturik, euskarak une honetan hezkuntzan duen lekua zein eta nolakoa den aztertu nahiko nuke.

Zehatzago esanda, UEMAn sartuta dagoen Gipuzkoa kostaldeko herri bateko eskola izan da ikerketako protagonista. Izan ere, izaera kualitatiboa duen ikerketa bat egin da. Horretarako, eskolako langile ezberdinek erantzun anitzak eman dizkioten elkarrizketekin batera, behaketalanek ere osatzen dute ikerketa kualitatiboa. Hala, aldeztatik zehaztutako ikerketahelburuei erantzuteko jomugarekin jaso dira behaketaren bidez jasotakoak.

Hori horrela, lan honen xede nagusia, UEMA barnean dagoen herri bateko eskola euskararen egoera zein den aztertzea litzateke, hala nola, bertako hizkuntza errealitatea zein den, zehazki euskararen egoera zein den, zentroaren hizkuntzekiko apustua zein den aztertuz, besteak beste.

Beraz, hau guztia laburbilduz eta lan honen egiturari erreferentzia eginez, lehendabizi, lanari hasiera emateko, zati teorikoa izango dugu, non, adituen ikerketa eta ideia ezberdinak erabiliz, marko teorikoa osatuko den. Jarraian, lan honekin lotu nahi diren helburuak zerrendatuta ikusi ahal izango ditugu, nolabaiteko hipotesiak sortuz. Ondoren, helburu eta hipotesi horiek zehaztu ostean, ikerketa aurrera eramateko erabili den metodologia azalduko da, eta bertan, erabilitako tresnak eta pausoak aipatuko dira.

Gradu amaierako lana. Arabako Hezkuntza eta Kirol fakultatea.

Jarraian, ikerketa guztietan bezala, emaitzen atala izango dugu, bertan, iturri ezberdinetatik jasotako ideia eta gai ezberdinak elkarrekin kontrastatzeko aukera izanik. Amaierara iristean, lanaren inguruan hausnarketa sakon bat egin eta gero, ondorio eta hobekuntza proposamenak izango dira ikusgai, eta azkenengo zatian aldiz, lana osotasunean ulertzeko eta informazio gehigarri bat behar izanez gero, erreferentzia bibliografikoen eta eranskinen atala egongo da eskuragarri.

3. JUSTIFIKAZIOA

Aurretik esan bezala, Gipuzkoa kostaldeko eskola zehatz bat oinarri izanik, bertako hezkuntzaren eta euskararen harremana nolakoa den aztertzea izango da lan honen helburua. Izan ere, interes pertsonala izan da hori horrela izatearen zergatia, hasieratik izan baitut argi euskararen inguruko lanketa bat egin nahi nuela, eta zer hoberik nire lan-esparrua izango denarekin egitea baino.

Euskara eta hezkuntza, hezkuntza eta euskara, bi kontzeptu ezberdin, baina aldi berean hain loturik dauden bi kontzeptu dira, eta esan bezala, interes pertsonala izan da abiarazle, izan ere, euskararen orainarekiko eta etorkizunarekiko dudan afektibotasun eta sentsibilizazio handia izan dira oinarri-oinarrizko motibazioak.

Bestalde, txiki-txikitatik izan da nire ama-hizkuntza, eta ez dut izan inguruan euskara ez den beste hizkuntzarik orain dela urte batzuk arte. Urteek aurrera egin ahala, gaztelania geroz eta gehiago iritsi da nire belarrietara, baina euskararekiko dudan atxikimendu hori indartuz joan da, eta horri eustea da gakoa, ezta?

Beraz, aztertutako eskola UEMA-n sartutako herri batean kokatzen denez eta UEMAk berez esan nahi eta daukan helburua jakin-min, oraindik euskararekiko sentsibilizazioa, afektibotasuna eta maitasuna bizirik eta indartsu dagoela egiaztatze beharrak bultzatu nau ikerlan hau egitera.

4. MARKO TEORIKOA

Honako atal teorikoa osatzeko erabiliko den metodoa, *inbutu-efektu* bidezko metodoa izango da. Izan ere, soziolinguistika izanik oinarri, lehendabizi, honen inguruko ezaugarri eta informazioa izango dugu. Ondoren, alor honen barruan sartzen diren hizkuntzen inguruko zenbait nozio orokor emango dira, azpiatal ezberdinak sortuz, hala nola, *munduko hizkuntzak*, *hizkuntza gutxituak*, *hizkuntza diglosia* eta *hizkuntza ukipena*.

Jarraian, gure ikerlanaren oinarri eta bihotz diren elkarrizketa eta behaketak kontuan izanik, eta aurrez zehaztutako ikerketa-helburu nagusia euskara hezkuntzan eta zehazki, eskolan nolakoa den kontuan izanik, *euskara hezkuntzan* atala izango dugu. Atal honen barnean, Euskal Hezkuntza Sistemak barne hartzen dituen *murgiltze* eta *mantentze programak* ere azalduko dira.

Bestalde, Agenda 2030 izenez ezagutzen den agendak barne hartzen dituen Garapen Jasangarriko Helburuak aipatuko dira *Garapen Iraunkorreko Helburuak* atala sortuz eta betiere EHUko Unesco Katedrari erreferentzia eginez. Azkenik, gaur egun kultur eta hizkuntza aniztasunaren erdian euskara biziberritzea justifikatzeko erabili ohi den *Hizkuntzen Ekologia* atala izango dugu, aurreko atal eta azpiatal guztietan bezala, honetan ere euskarri teorikoak izanik izendatuta eta azalduta atala gorpuzten duen bitartean.

4.1 SOZIOLINGUISTIKA

Soziolinguistikaz ari garela, hainbat egilek osaturiko Soziolinguistika Eskuliburua (2010) dugu erreferente nagusia; izan ere, bertan, soziolinguistikaren nazioarteko oinarritzko teoria eta ikerketak, eta horiek Euskal Herrian izan duten garapena lantzen eta azaltzen baita xehetasun osoz, besteak beste.

Beraz, soziolinguistikaz ari garela, gizartea eta hizkuntza, oinarri-oinarritzat hartu beharreko bi kontzeptu dira, besteak beste, bi hauen arteko elkarreragina aztertzen baitu, baina beste modu batean esanda, soziolinguistika, hizkuntzaren eta gizartearen arteko elkarreraginak aztertzen dituen zientzia da (Soziolinguistika Eskuliburua, 2010). Adiera zabalean landuz gero, eleaniztasuna, hizkuntz hautaketa, hizkuntzarekiko jarrerak eta hizkuntzen iraupena agertzen dira besteak beste (Soziolinguistika Eskuliburua, 2010).

Soziolinguistikarekin jarraitzeko, Uema Udallerri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA) aipatzea ezinbestekoa da. Izan ere, Soziolinguistika Klusterrarekin batera, hainbat ikerketa,

azterketa eta kaleko erabileraren neurketa eguneratu egin baititu, besteak beste. Era berean, etorkizuneko Euskal Herri euskaldun baten alde lanean ari den erakunde publikoa da, eta gaur egun, Iurgune euskaldunetako 94 udalerrik osatzen dute; Hego Euskal Herriko lau herrialdeetako udalak biltzen dituen mankomunitate bakarra izanik.

Hori horrela, Gipuzkoari errefentzia eginez, Urola Kosta bailara dugu bertan, Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaia kokatzen direlarik, izan ere, herri hauek, euskararentzat, arnagune dira eta hori gutxi balitz, euskara udalerririk horien eta bertako herritarren nortasun eta izaeraren ikur funtsezkoa da. Hori kontuan izanik, Urola Kosta Udal Elkarteak, UEMA-ren weborrian (UEMA, 2017) aipatzen den bezala, argi du euskara gure ondarea dela eta ondare bezala ezagutzera eman behar zaiela bertaratzen diren bisitariei ere.

Beraz, ikus dezakegun bezala, euskararentzat arnagune diren herrialde horiek kontuan izanda, bat aukeratuko da ikerketa hau egiteko. Hain zuzen ere, aipaturiko Urola Kosta bailarako herri batean kokatuko da zehazki. Herri hau, Euskal Herriko eskualderik euskaldunenean kokatuta dago, eta azken urteetan, Urola Kostako HITZA egunkariak dioen bezala, bertan euskararen ezagutzak eta erabilerak ere gora egin dute erabat (Urola kostako HITZA, 2017-11-07).

4.1.1 Munduko hizkuntzak:

Munduan zenbat hizkuntza dauden zehaztea lan zaila da, “hizkuntza asko eta asko dokumentatu gabe daudelako” (Manterola eta Berasategi, 2011, 11. or.) baina horrez gain, kopuru hori aldatzen doa munduko hizkuntzen ezagutza hobetu ahala, beraz, esan bezala, lan zaila izaten da.

Hala ere, Ethnologue ¹ (2022) hizkuntza katalogoaren azken argitalpenak (25. edizioak) dioen moduan, munduan zazpi mila hizkuntza inguru mintzatzen dira, eta zehazki esanda, bizirik dauden 7.151 hizkuntza ezagutzen direla dio.

Zehaztasun hortaz jabetzeko, hainbat sailkapen burutu dira, hala nola, *Globalizazioa eta hizkuntza gutxituak* (2006) ikerketan, Imanol Harok aipatzen duenaren arabera, kontinenteen arabera, estatuen arabera eta hiztunen arabera desberdintzen dira. Hortaz, lehenengo irizpideari dagokionez, hau da, kontinenteen arabera sailkapenari dagokionez,

¹ Gizarte zientzia bat da, herri ezberdinak eta bere kulturak ikasi, aztertu eta konparatu egiten dituenak. Datu biltzaile ugariaren lanak bere baitan hartzen ditu eta etengabe eguneratzen da.

Gradu amaierako lana. Arabako Hezkuntza eta Kirol fakultatea.

Harok (2006), Afrikan 1.900 (%32), Asian 1.900 (%32), Pazifikoan 1.100 (%18), Amerikan (%15) eta Europan 200 (%3) hizkuntza daudela azpimarratzen du.

Estatuen arabera den bigarren irizpideari dagokionez, 22 estatutan 100 hizkuntzatik gora hitz egiten direla dio Harok (2006); 22 estatu horietan munduko hizkuntzen %90 inguru hitz egiten delarik. Aitzitik, azken eta hirugarren irizpideari dagokionez, hiztun kopuruan murgiltzen da, izan ere, Harok (2006) dioenari jarraituz, 70 hizkuntza inguruk hamar milioi hiztunetik gora dute. Beraz, hizkuntzen %1,3k munduko biztanleriaren hiru laurden biltzen dute, hizkuntzen %55,5ek 10.000 hiztunetik behera dituztelarik (Haro, 2006, 35. or.).

Milaka hizkuntza horietatik, UNESCOren arabera, %43k ez du bermatuta belaunez belauneko transmisioa, eta horren ondorioz, desagertzeko arriskuan daude. Desagertze horretan, aipatzeko datua da, bi astetik behin, munduan hizkuntza bat hiltzen dela, baina hala ere, munduak anitza izaten jarraitzen du hizkuntzei dagokionez. Munduko lurralde gehienak, hizkuntza bat baino gehiago hitz egiten duten jendez beteta daude, hau da, eleanitzak dira. Baina, esan bezala, gehiengoak bai, baina, Crystalen (2006) azterketaren arabera, munduan 51 hizkuntza daude hiztun bakarrarekin eta 181, bat baino gehiago dituztenak hamar baino gutxiagorekin.

Barreñak (2007) dioenez, egoerarik larrienak Papua Ginea Berrian eta Australian kokatzen dira. Izan ere, Papua Ginea Berrian, 16 eta 17, hurrenez hurren eta Australian, 26 hizkuntza dira hiztun bakarrarekin, beste 71, bi eta hamar hiztun artekoak diren bitartean. Hau horrela, datu zehatz hauek interpretatzerako orduan, zein aukeratuko genituzke hizkuntza gutxituen taldean sartzeko? Izan ere, zerk definitzen du hizkuntza batek hiztun gutxi edota asko dituen? Goian aipaturiko *Globalizazio eta hizkuntza gutxituak* ikerketako idazleak, hau da, Imanol Harok (2006), hizkuntza bat izendatzeko orduan terminologia oso zabala dela dio, horien artean, esaterako, hizkuntza gutxitu, hizkuntza minoritario, mehatxupean dauden hizkuntzak, galtzear dauden hizkuntzak bezalako izenez definitzen baititu.

Hau kontuan izanda, ikus daiteke idazleak, hau da, Harok (2006), zailtasunak dituela hizkuntzak sailkatzerako orduan, haren ustez, hizkuntzak “bizi-bizi daude, batzuk desagertu eta beste batzuk sortu egiten diren bezalaxe, pentsatzekoa da hizkuntza batzuk gutxitu izatetik hizkuntza ez-gutxitu izatera pasako direla” (Haro, 2006, 35. or.). Hau da, hizkuntzak etengabe aldatzen doazela dio, aurretik hizkuntza gutxituak ez direnak hizkuntza gutxitu izatera igarotzea eta alderantziz gertatzea posible dela dio.

4.1.2 Hizkuntza gutxiuak

Lehenago aipatu bezala, hizkuntza bat *hizkuntza gutxitu* izendatzeko, hainbat irizpide hartu behar dira kontuan, honek sailkapen ezberdinak egitea ahalbidetzen duelarik.

Izan ere, nola jakin dezakegu hizkuntza bat hizkuntza gutxitu dela? Hizkuntza gutxiuak sailkatzeko lehenik eta behin “gutxiengoa” zer den zehaztu behar da, eta Euskaltzaindiaren Hiztegiak (2021) definitzen duenez, “gehiengoa osatzen ez duen taldea” da gutxiengoa.

Hori horrela izanik, egoera gutxituan dauden hizkuntzak ditugu, eta hauetako batzuk oraindik ere zutik jarraitzen dute, euskara eta kataluniera, esaterako. Aitzitik, historian zehar, gertakari ezberdinen ondorioz eta denboraren poderioz, desagertzen joan diren hizkuntzak ezagutu izan dira. Izan ere, Cenoz eta Gorter-ek (2017) hizkuntza gutxituen inguruan diotenari erreferentzia eginez, esan dezakegu, tokiaren arabera, egoera soziolinguistikoa ezberdina dela, eta maiz, ikasleei hizkuntza gutxitua den hori eskolaz kanpo erabiltzeko aukera ez zaiela luzatzen.

Kike Amonarrizen (2019) hitzei erreferentzia eginez aldiz, nahiz eta erabilera soziala murriztua izan, hizkuntza horien ohiko ezaugarriak bi dira. Alde batetik, elebitasun orokortua, non, herritar guztiek dakiten behintzat hizkuntza ofizial hegemoniko nagusia, eta bestetik, lege mailako aitortza mugatua. “Hizkuntza hauen artean, hala ere, badira biziberritze-prozesuan daudenak (euskara, galesera edo maoriera), eta oraindik ere galera-prozesu bizian daudenak (bretoiera edo ketxuera)” (Kike Amonarriz, 2019, 33. or.).

Termino honekin harreman estuan dauden beste kontzeptu batzuk ere, elebakar edota eleanitz izango lirateke, adibidez, eta bigarren hau aipatzean zehazki, hau da, eleaniztasunaz ari garenean, Jasone Cenoz dugu erreferente nagusi gisa, besteak beste. Izan ere, Jasone Cenozen eta Durk Gorter-en (2017) ustetan, tradizionalki elebakartasuna izan da elebitasunaren eta bigarren hizkuntzaren jabekuntzaren erreferentzia.

Era berean, Cenoz eta Gorterekin (2017) jarraituz, gaur egun *Translanguaging* izeneko kontzeptua ezagun dugu, izan ere “is one of the more widely used concepts associated with the new trends in the study of multilingualism” (4. or) hau da, gaur egun, eleaniztasuna aztertzeko joera berriei zuzenki loturiko kontzeptua dugu *translanguaging*. Hori horrela, Cenoz eta Gorteren (2017) arabera, *translanguaging* ikuspegiak beti jotzen du hizkuntzen arteko arazo edota zailtasunak konpondu edota argitzearen alde.

Bestalde, Gartziarenak eta Altunak (2021) diote, hiztun elebatarrek ez bezala, hiztun eleaniztuna denak ere, egunean zehar sortzen zaizkion behar komunikatibo horiei erantzuteko, bai eskolan bertan eta baita eskolaz kanpo ere, haren erreperitorio linguistikotik elementuak aukeratzen dituela.

Hori horrela, Gartziarenak eta Altunak (2021) honakoa diote eleaniztasunaren alde eginez:

“Ikastetxeetan, esaterako, hainbat hizkuntza irakasteaz gain, hizkuntza gutxituaren erabilera sustatzea izan ohi dute erronka. Honek zera esan nahi du: hizkuntza bat baino gehiagotan idazten, irakurtzen eta komunikatzen ikasteaz gain, bestelako gaitasun informalak garatzeko ardura esleitzen zaiola eskolari, hizkuntza gutxituak presentzia txikia duen inguruneetan” (82. or.).

Hizkuntza gutxituen hariari berriro ere helduz, Imanol Haro-ri (2006) emango diogu hitza, izan ere, hizkuntza gutxitu askok, hizkuntza handiek ez bezala, hiztun elebatarrik ez dutela dio, edota horien kopurua behintzat oso txikia dela, eta gehienetan eremu horretako hiztunak elebidunak edo eleanitzak izaten direla dio. Bestalde, hizkuntza nagusiekiko boterearen arabera, aipaturiko elebitasun edota eleaniztasun simetrikoa edo asimetrikoa biziko dute. Hau da, Soziolinguistika Eskuliburuari (2010) erreferentzia eginez gero, hiztunak bi hizkuntzetan ezagutza-maila bera ez duenean, elebitasun asimetriko edota desorekatua izango dugu, eta alderantziz. Hau da, hiztunak bi hizkuntzetan ezagutza-maila bera duenean, elebitasun simetriko edota orekatua deituko diogu.

Hori horrela, eta euskararen kasuari erreferentzia eginez, euskarak ez du ia hiztun elebatarrik, hau da, euskaldun gehienak elebidunak edo eleaniztunak gara. Baina, kasu askotan, Kike Amonarrizek (2012) idatzitako «Euskararen tamaina munduko hizkuntzen artean» artikuluan honela dio:

“Guri iruditzen zaigu gure egoera oso eleanitza dela, baina hori ere ez da horrela. Europa da alde handiz (etorkinen hizkuntzak aintzat hartu gabe) hizkuntza gutxien duen kontinentea. Munduko hizkuntzen %3 besterik ez da hitz egiten Europan: 234”.

Beraz, hau guztia esanda, eta Manterola eta Berastegiri (2011) erreferentzia eginez, munduko hizkuntzen %95 hizkuntza gutxituak direla jakinda, zer egingo genuke hizkuntza gutxitu hauek galduko balira? Eta betirako desagertuko balira?

Moreno Cabrerak (2000, Oskia Ollakarizketak aipatua, 2019) argi du, bere ustez, sekulako hondamendi kulturala izango litzateke. Horregatik, aipaturiko aniztasuna eta hizkuntza gutxituak indartzea beharrezkoa da, eta ideia horri, Crystal (2000) ere gehitzen zaio, bere ustetan, hizkuntza-aniztasuna, landareen eta animalien aniztasuna defendatzen den modu berean defendatu beharko bailitzateke. Izan ere, aniztasuna da espezieei denboran zehar irauteko aukera ematen diena, eta hiztun eta gizarte eleaniztunok ere hala egin beharko genuke, horri esker, oso aberatsa den aniztasuna izango baitugu.

Aditu desberdin hauen ideiak jaso ondoren, egungo datuei egingo diogu erreferentzia. Izan ere, hizkuntza gutxitu eta eleaniztasunaz ari garela, euskararen ezagutzan jarriko dugu begirada. Izan ere, Jon Aizpuruak (2016) argitaratutako txostena dugu lehendabizi eredu. Beraz, Aizpuruaren hitzei jarraiki, azken 25 urteotan euskaldunen kopuruak nabarmen egin du gora, zehazki, 2016an 1991n baino 223.000 euskaldun gehiago daudela azpimarratzen du, eta datu horietan barrena, euskara ulertzeko gaitasuna dutenak, hau da, euskaldun hartzaileak, 251.600 gehiago dira eta erdaldun elebakarrak 198.300 gutxiago.

Era berean, Soziolinguistika Klusterrak (2021) hizkuntzen erabileraren inguruko kale neurketa argitaratu berri du egungo egoera ikusi eta aurreko datuekin alderatzeko asmoz. Hori horrela, 2016an bezala, bilakaera ez da homogenea izan, izan ere, lurralde batetik bestera desberdintasunak nabari dira euskararen kale erabileran (Soziolinguistika Klusterra, 2021). Datu horiek ikusita, ondoriozta genezake hobekuntza orokorra nabaria dela, baina, etxeetako hizkuntzaren erabilerari dagokionez, azpimarratzekoa da egin duen gorakada. Izan ere, 2016an, euskara erabiltzen zutenak biztanleriaren %16 ziren, 1991n %14 izanik (Eustat, 2021).

Aitzitik, Soziolinguistika Klusterraren (2021) arabera, euskararen erabilerak eremurik euskaldunenean behera egin du; eremurik erdaldunenean gora egin duen bitartean. Izan ere, honela zehazten du Klusterrak (2021):

“Duela hogeita hamar urte euskaldunak % 75 baino gutxiago ziren udalerrietan egin du gora euskararen kale-erabilerak 1993tik. Abiapuntuko erabilera-mailarekiko hazkunde-proporzio handiena % 25-50 ezagutza-eremuak izan du, eta ondoren, % 50-75 ezagutza-eremuak. Oro har, eremu bakoitzaren barne-osaera aldatu egin da urteek aurrera egin ahala; eremu erdaldunena euskaldunduz joan den bitartean, eremu euskaldunena erdaldunduz joan da” (69. or).

4.1.3 Hizkuntza ukipena

Gizarte berean, hizkuntza bat baino gehiago hitz egitean, jakina da hizkuntza horien artean erlazio estu bat sortzen dela maiz, izan ere, Sareko Euskal Gramatikak (SEG) hizkuntzen ukipenari dagokionez, munduko hizkuntza gehienek elkar ukitzen dihardutela adierazten du, eta horren bidez, hizkuntza-ukipena deitzen diogun erlazioa sortzen dela.

Elkar ukipen hori, gaur egun Siguanek (2001, Fernandezek aipatua, 2012) adierazten duen bezala, geroz eta nabariagoa da, izan ere, mundu osoko herritarrak geroz eta gertuago gaude elkarrengandik. Horren ondorioz, hizkuntza plangintzarako argibide eta irizpide sendoak behar dituzten mota guztietako enpresa, erakunde, eta gizarte-eragileak behar dira, bai Euskal Herrian eta baita nazioartean ere (Fernandez, 2012).

Egia da, *hizkuntza-ukipena* kontzeptua, Sareko Euskal Gramatika (SEG) weborriarekin jarraituz, kontzeptu sinboliko edota irudi moduko bat dela, ez baitira zehazki hizkuntzak beraiek kontaktuan, hizkuntza desberdinen hiztunak baizik. Beraz, hizkuntza ukipena, soziolinguistikaren ikergai nagusietako bat da, eta hau aztertzeko, Sareko Euskal Gramatikaren arabera, hiru ikuspuntu ezberdintzen dira: hizkuntza-komunitatearena, norbanakoarena eta hizkuntzarena berarena.

Ukipenean dauden hizkuntza komunitate horiek, beren hizkuntzak erabiltzeko erabilera-esparru edota eremuak eta baita hiztunak ere bereganatu egin behar dituzte eta horretarako elkarren artean lehiatzen dira, batak bestea menderatuko duelarik (Manterola eta Berasategi, 2011). Era berean, Patxi Juaristik (2017) dioen bezala, hizkuntza komunitateen arteko harremanak ondo araututa edota finkatuta egon ezean, ukipenean dauden hizkuntza horiek zero baturako joko batean sartzen dira, hau da, hizkuntzetako batek irabazten duena, ondoren besteak galtzen du, joko amaigabe bat sortuz.

Ukipen egoera horiek aldiz, eremu geografiko batean edota leku zehatz batean dagoen pertsona multzoa elebakarra izanez gero, ez lirateke egongo, baina Sareko Euskal Gramatikak ondorio indibidualei erreferentzia egiten diola aprobetxatuz, esan genezake ez dagoela hiztun elebakarrik. Beraz, ekintza gehienek beren ondorioak dituzten bezala, erlazio horrek ere, Zalbidek (2009) azaltzen duen moduan, ondorio batzuk ekartzen dizkio gizarteari, hala nola, ondorio indibidualak, ondorio linguistikoak eta ondorio sozialak. Hau da, hiztun-elkarte bateko edota bietako pertsonengan eragiten duten ondorioak (direla pertsona elebakarrak direla elebidunak); hizkuntzaren barne-osaeran eragiten dutenak (hizkuntza

nagusiak hizkuntza gutxituari modu ezberdinetan eragiten baitio, hala nola, fonologian, morfologian, sintaxian) eta azkenik, hizkuntzen erabileran gertatzen diren galdu-irabaziak, hala nola, hiztun-komunitateetan edota gizartean gertatzen diren aldaketak (Zalbide, 2009). Azkenik, aipatzekoa da gaur egun, *globalizazio* deitu zaion mugimenduaren ondorioz, lehenago aipatu bezala, hizkuntzen arteko ukipena ugartuz doala, hala azpimarratzen du Sareko Euskal Gramatikak. Izan ere, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriek eta garraio modernoek, biztanleriaren, produktuen, jakintzen edota ideien mugimenduak errazten dituzte, eta bide batez, hizkuntza-ukipena ere bai.

4.1.4 Hizkuntza diglosia

Aurretik aipatu bezala, hizkuntza ukipenaren ondorioetako bat, *Diglosia* da, zehazki, ondorio sozialetako bat, eta berarekin batera, *Elebitasun* kontzeptua daukagu. Azken kontzeptu hau, bi hizkuntza txandaka hitz egiten duen norbanakoari aplikatu ohi zaio. Baina, gaur egun, *Elebitasun soziala* dena, hau da, komunitate edo gizarte berean bi hizkuntza edo gehiago ukipenean daudela definitu nahi dugunean, Diglosia hitza da gehien hedatu dena. Izan ere, Zalbidek (2011) dioenez, “diglosiazko egoeran, hizkuntza batari eta besteari funtzio sozial diferenteak atxikitzen zaizkien neurrian, prestijioa ere diferentea dute hizkuntza (edo aldaera) biek” (61. or.).

Asko dira kontzeptu honen inguruan dauden ideiak, baita kritikotasunez aritu diren pertsonak ere, nozio eta ideia batzuk kritikatuak izan baitira. Izan ere, Ferguson (1959) izan zen aipaturiko elebitasun soziala edota gizarte-elebitasunaren kontzeptuan interesatu zena, diglosia kontzeptua teorizatuz. Baina, hizkuntzalari horren aurretik, aipatu beharra dago, Euskara Institutuko Sareko Euskal Gramatikak (SEG) adierazten duen bezala, terminoa bera, lehendabizi Jean Psichari (1854-1929) frantses helenistak, grekoz di- “bi aldiz” + glóssa “hizkuntza”, asmatu zuela.

Hori horrela, Ferguson (1959) hizkuntzalariak diglosiaren inguruan duen ideia, eta bere oinarria, honako hau litzateke: hizkuntzaren beraren aldaeren arteko banaketa nahiko egonkorra. Izan ere, ideia honetan, erabilera-eremuei dagokienez, goi-mailako funtzioak betetzen zituen aldaera bat eta behe-mailakoak betetzen zituen beste bat deskribatu zituen. Hala nola, goi-mailako aldaera hori, unibertsitatean, literaturan etab. erabilia dena izango litzateke eta aldiz, behe-mailako aldaera, eguneroko solasaldietan, literatura herrikoian, bezalako lekuetan erabili ohi dena, besteak beste.

Lehen aldaera hori, hau da, goi-mailako aldaera, Sareko Euskal Gramatikarekin (SEG) jarraituz, Fergusonen (1959) hitzetan, gainjarria dago, era formalagoan eta normalki ikasia delako. Aldiz, bestea, familiako transmisioaz ikasten dena litzateke; hau da, helduek haurrekin erabiltzen dutena eta haurrek beraien artean komunikatzeko erabiltzen dutena hain zuzen ere.

Horrez gain, Diglosiaren inguruan ari garela, Fishman (1972) aipatzea ere ezinbestekoa da. Haren iritziz, diglosia eta elebitasuna ez baitira fenomeno bera, baina aldi berean gerta daitezke. Gaur egun, Fergusonen (1959) jatorrizko ereduaren barne-diglosia edo endodiglosia azaltzeko erabiltzen da (Vila eta Boix, 1998; Coyos, 2010) eta Fishmanena kanpo-diglosia edo exodiglosia azaltzeko. Hala, "hizkuntza baten aldaeren arteko diglosia endodiglosia izendatu izan da eta hizkuntza desberdinen arteko diglosia, exodiglosia" (Zalbide, 2011, 84. or.).

Fishman (1972) soziolinguista estatubatuarrak landu du bereziki diglosia kontzeptua, Fergusonen kontzeptua hedatuta. Izan ere, Sareko Euskal Gramatikarekin (SEG) jarraituz, diglosia, bi hizkuntza edo hizkuntza-aldaera baino gehiagorekin ere gerta daitekeela defendatu zuen; hau da, goi-aldaera eta behe-aldaera hizkuntza baten baino gehiagoren artean ere gertatzen direla azpimarratuz.

Hala ere, modu objektibo eta labur batean esanda, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusiak argitaraturiko Soziolinguistika Hiztegiaren (2010) arabera, diglosia, "ukipen-egoeran dauden bi hizkuntza edo hizkuntza-barrietaren arteko mendekotasun-egoera litzateke" (36. or.). Izan ere, hizkuntza horiek, funtzio edota egoera ezberdinetan erabili ohi izan dira, hala nola, bi horietatik bat, funtzio formalean erabili ohi izan da, hau da, hezkuntza, administrazioa, hedabideak eta bestea, une informalean, hau da, lagunartean, familian, besteak beste (Soziolinguistika Hiztegia, 2010).

Aipaturiko diglosiaz gain, erabateko diglosia ere aipatzen da Soziolinguistika Hiztegian (2010). Izan ere, "hizkuntza batek beste hizkuntzaren funtzio edo erabilera formalak ez ezik, azken honen lurralde osoa bereganatzen duenean gertatzen da diglosia" (38. or.), eta gure hizkuntzari erreferentzia eginez, esparru honetan sartuko genuke euskara, katalana eta bretoierarekin batera. Beraz, hau esanda, eta Euskal Herriaren eta euskararen eremura hurbilduz hain zuzen ere, badakigu, Euskal Autonomia Erkidegoan bi hizkuntza ofizial ditugula: euskara eta gaztelania. Modu horretan, hizkuntza horiek izatearen ondorioz, euskaldunok, gutxienez behintzat, elebidunak garela esaten da. Baina, hori horrela egitean orokortzen ari

gara, kontuan izan behar baitugu “euskaldunon errealitatea bestelakoa dela eta maiz ofizialtasunak ez duela gure gaitasuna bermatzen” (Zamakola, 2019, 4. or.).

Era berean, euskararen erabilerari dagokionez, argi ikusi da azken neurketetan, euskararen erabilera geldialdian sartu dela, hau da, ez dela mugitzen ez aurrera ez atzera. Hori horrela egiaztatzen duten datuak, duela gutxi argitaratu ditu Soziolinguistika Klusterrak (2021) eginiko ikerketa txostenaren bidez. Izan ere, euskararen kale-erabilerari dagokionez, azken bost urteotan ez da izan gorabeherarik, eta hori gutxi balitz, 1989. urtetik hona, 1,8 puntu egin du gora. Era berean, Mikel Gartziazenak eta Jon Altunak (2021) diote, azken 30 urteotan euskara-hiztunen kopuru potentzialak gora egin egin duela nabarmen, gehienbat, euskararen irakaskuntzan egin den lan eskergagatik. Aitzitik, Soziolinguistika Klusterrak (2021) azpimarratzen du eremu euskaldunenean nabaritu dela beherakada. Izan ere, “eremu bakoitzaren barne-osaera aldatu egin da urteek aurrera egin ahala; eremu erdaldunena euskaldunduz joan den bitartean, eremu euskaldunena erdaldunduz joan da” (Soziolinguistika Klusterra, 2021, 69. or).

Azken datu eta informazio hori kontuan izanda eta Igartzabalek (2015) aipatzen duena azpimarratuz, hau da, hizkuntza bat baino gehiago elkarrekin bizi direnean, gure kasuan esan bezala, gaztelania eta euskara, maiz hautaketa egitea gertatzen dela estres linguistiko izena hartuz, Gemma Sanginésesek, ARGIA astekariak (ARGIA, 2013/12/15) egindako elkarrizketan esandakoa txertatzea interesgarria litzateke. Izan ere, “autoestima falta handia dago hizkuntza gutxituen hiztunen artean, eta hori buruan sartu diguten zerbait da. Hizkuntza gutxituen hiztunak askotan urpekariak gara: ur-azalaren azpian geratzen gara eta soilik eremu ziurretan ateratzen gara azalera” ozen adierazten baitu Sanginésesek (2013). Izan ere, euskara, gaztelania eta frantsesa elkar ukitzen egon dira mende askotan zehar, eta oraindik ere horrela dihardute, baina gaztelania edota frantsesa gehiengoaren hizkuntzak bilakatu diren bitartean, euskara gutxiengoaren hizkuntza bilakatu da.

Azkenik, aurretik esandako guztia elkar lortuz, euskararen kasuan, eta Euskal Herriko gune batzuetan zehazki, Fergusonek (1959) duen ideia oinarritzat dugula esan daiteke; hori, bi euskara ezberdin elkarbizitzen egonez gero izango bailitzateke; bata goi-barietatea eta bestea behe-barietate bezala izendatuko baigenituzke. Horren adibidetzat, euskara batua eta euskalki bat hartu genitzazke, kontuan izanik euskaldun zahar batzuk euskara batu hori ikasi gabe gelditu direla eta horren ondorioz hura ulertzeko arazoak dituztela. Hala ere, egoera hori ez da oso ohikoa, baina badira kasuak. Hala, Fishmani (1972) erreferentzia eginez, Zuberoan

adibidez, “borroka”, Zuberera eta frantsesaren artekoa dela esango genuke, izan ere, euskara batua ez da egiazko goi barietate edota aldera, postu hori jada frantsesak betetzen baitu.

4.2 EUSKARA HEZKUNTZAN

Behin euskararen ezagutza zein erabilera ezagututa, garrantzitsua litzateke hezkuntzaren esparruan hau nola kokatu genezakeen edota zein leku hartuko lukeen jakitea. Beraz, euskararen egoera osotasunean ulertzeko, honen egoera, eremu pribatuan, hala nola, familian, eta bestalde, eremu publikoan, esate baterako hezkuntza-sisteman eta irakaskuntzan, kontuan izan behar da (Martinez de Luna, 2011).

Hori horrela, familia eta hezkuntza-sistema, hau da, etxea eta eskola, haurtzaroko harreman sozialen bi sare nagusi dira inolako zalantzarik gabe. Bertan jasotzen dugun informazioari esker, hau da, bertako ezaugarrien eta baita bertan jokatzeko moduek ere, hala nola, haurrak duen hitz egiteko gaitasuna eta haren jokaerek, guztiz baldintzatuko dute hizkuntzarekiko duten portaera. Ados agertzen da ideia horrekin Jauregi (2003), izan ere, hizkuntzei erreferentzia eginez, etxeak eskolak baino eragin sakonagoa duela azpimarratzen baitu.

Bestalde, Azurmendi eta Luqueren (2006) arabera, familiaren hizkuntzak eta zehazki, euskararen erabilerak, euskarako frogetan ez ezik, gainontzeko hizkuntzetan ere eragin positibo, garrantzitsu eta esanguratsua izan dezake. Hala ere, nahiz eta hori horrela izan, maiz, inguruan, eskolaren babesa bermatzen ez bada, etxearen eragina indargabetu daiteke. Baina, alderantziz ere gertatu daiteke, izan ere, gaztelera ama-hizkuntza duten ikasleek, D ereduan, euskaldunek jarraitzen dituzten pausu eta prozesu bera jarraituz gero, euskararen emaitza egokiak lortzea posible litzateke, eta horrek, Azurmendi eta Luqueren (2006) arabera, horien ama-hizkuntza ez den beste hizkuntza batzuen ikaskuntzari ere lagun diezaioke, bata bestearen beharra duela ondorioztatuz.

4.2.1 Euskal Hezkuntza Sistema

Euskal Herrian, hezkuntza sistemaren esparruan, lau egoera edota eredu bereizten dira, hala nola: D eredia, non euskara den gailentzen den hizkuntza, gaztelania kurrikulumeko ikasgai bat gehiago izanik. Bigarren eredia, B eredia litzateke, eredu “mistoa” izenez ezagutzen dena; non ikasgaiak bai euskaraz eta baita gaztelaniaz ere irakasten diren. Eta azkenik, A eredia dugu, non gaztelania gailentzen den, euskara kurrikulumeko ikasgai bat izanik.

Gradu amaierako lana. Arabako Hezkuntza eta Kirol fakultatea.

Bestalde, X eredu ezohikoa izango genuke, non euskara ezertarako ere erabiltzen ez den eredu hain zuzen ere.

Eredu horiek kontuan izanda, Euskal Hezkuntza-Sistemaren barnean, ondoren sakonago azalduko diren bi eredu ditugu, murgiltze eredu eta mantentze eredu, hain zuzen ere. Murgiltze -eredu edota -programan zentratuz, Beldarrainen (2012) hitzei erreferentzia egingo diogu. Izan ere, bigarren Hezkuntzan irakasteko programa bat dela adierazten digu, non egoera soziolinguistiko eta hizkuntza-erronka jakin bat dituzten ikasleei zuzendua dagoen.

Horrez gain, euskaldunoi zuzenean eragiten digun ezaugarria du oinarrian, izan ere, “helburu jakin hori komunikazio-gaitasuna bi hizkuntzetan eskuratzea da, bietako batean ikasteak bestean komunikazio-gaitasuna galtzea ekarri gabe” (Beldarrain, 2012, 38. or.). Hori horrela, aipaturiko ezaugarri hori, gaztelaniari dagokio, izan ere, aipaturiko Euskal Hezkuntza sistemaren barnean, murgiltze ereduari dagokionez, euskarak, gaztelania du ondoko ikasgai gisa. Hori horrela, datu teoriko horiek datu praktiko bilakatze aldera, lehendabizi, VI. Inkesta Soziolinguistikoari (2016) egingo diogu erreferentzia, izan ere, EAEn, biztanleriaren gehiengoak, hauen seme-alaben eskolatzeko-hizkuntza gisa, D eredu (%69,3) eta B eredu (%23,6) aukeratuko lituzkete.

Bestalde, VI. Mapa Soziolinguistikoari (2016) erreparatuz gero, 2017/2018 ikasturteko datuak ditugu. Hala, EAEn araubide orokorreko irakaskuntza ez unibertsitarioan matrikulatu gabeak, 375.318 ikasle dira. Izan ere, horietatik, %66,8, hau da, 250.841 ikasle, D ereduan daude matrikulatuta. B ereduari dagokionez, aldiz, 70.237 ikasle (%18,7) eta azkenik, A ereduan 51.957 (%13,8). Hori kontuan izanda, ikasturte honetako (2017/2018) biztanleria, D ereduan matrikulatutako ikasle gehien Haur Hezkuntzan daude, biztanleriaren %79,5k ikasten baitu eredu honetan (VI. Mapa Soziolinguistikoa, 2016).

Urteotan zehar izandako bilakaerarekin jarraituz, frogatu eta baieztatu dezakegu, urte batzuen ondoren ere, euskarak gorakada handia jaso duela (EDB, 2021). Izan ere, oraingo honetan, 2019/2020ko ikasturteari dagokionez, Gipuzkoan, A ereduan %9k, B ereduan %8k eta D ereduan %83k jardun zuen. Bizkaian aldiz, A ereduan %14k, B ereduan %22k eta D ereduan %63k; eta azkenik, Araban, A ereduan %17k, B ereduan %30k eta D ereduan %54k jardun dute. Beraz, datu hauek guztiak ikusita, D eredu da gehien erabili izan dena urteotan zehar alde handiz gainera, nahiz eta oraindik ere A zein B ereduak haien indarra izan (batez ere Araban).

Azkenik, eredu horiek kontuan izanik, Soziolinguistika Klusterrak argitaratutako 2021eko ikerketa txostenari egingo diogu erreferentzia. Izan ere, euskararen kale-erabilerari dagokionez, azken bost urteotan ez da izan gorabeherarik, eta hori gutxi balitz, 1989. urtetik hona, 1,8 puntu egin du gora. Bestalde, Soziolinguistika Klusterrarekin (2021) jarraituz, urte guzti hauetan, hau da, 1989tik 2021rako tarte honetan, EAEko lurraldeetan gora egin du euskararen kale-erabilerak, eta Nafarroa Garaiari dagokionez aldiz, “joera gorabeheratsua antzeman zaio, nahiz eta gorabehera handiena 1,8 puntukoa den” (Soziolinguistika Klusterra, 2021).

Hezkuntzan azpimarratzen eta sailkatzen diren eredu horiek ikusi ondoren, garrantzitsua da jakitea erdal elebidunen kasuan, etxea ez dela izango euskarazko eremu bat, nahiz eta nolabaiteko ezagutza egon. Beraz, etxe askotan, behartuak sentitzen dira haien seme-alabak eskolaratzeko, haien euskalduntzea bermatzen lagunduko dielakoan. Baina, Jauregiren (2003) ustez, arestian aipatu bezala, etxeak eskolak baino indar handiagoa du eta ez du hizkuntzaren hutsune hori estaltzeko indar nahikorik. Izan ere, eskolak ezin du etxeak bermatu ez duen hori ez estali ezta ordezkatu ere.

Aipatutakoa kontuan izanik, eta laburki esanda, hezkuntza eta familia estuki loturik dauden bi kontzeptu garrantzitsu dira, eta azpimarratzekoa da Soziolinguistika Aldizkariak (2016) dioena, izan ere, familia bidezko transmisioaren bidez, hiztunak modu naturalean jasotzen baitu hizkuntza. Hori horrela, gurasoak euskaldunak izanez gero, eta haien lehen hizkuntza edota ama-hizkuntza euskara izanez gero, euskararen transmisioa erabatekoa izango litzateke, gehienbat euskararena soilik (% 93) (Soziolinguistika Aldizkaria, 2016).

4.2.2. Murgiltze eta mantentze programak

Hezkuntza eta familiarekin jarraituz, Julen Sastren (2018) hitzei erreferentzia eginez, ezinbestekoa da baita ere harreman-sareak sendotzeko, etengabe neurriak sustatzen jarraitzea. Euskaraz erabiltzeko aukerak gehituz gero, euskararen erabilerak ere gora egingo luke, eta horrez gain, euskara erabiltzeak ere handitu egingo litzuke euskaraz hitz egiteko erraztasunak.

Gaur egun, bai Espainiako eta baita Euskal Herriko hezkuntza-sistemetako ezaugarri nagusietako bat aniztasuna dela kontuan izanik, hau da, eskoletan, herrialde, kultura, eta hizkuntza ezberdinetako haurrak aurki ditzakegula kontuan izanik, argi izan behar dugu, eskolaren eginkizuna, aniztasun horri erantzuna ematea dela hain zuzen ere (Julen Sastre, 2018). Hori horrela dela baieztatzen dute Xavier Besalú eta Ignasi Vilak (2007), eskoletan

Gradu amaierako lana. Arabako Hezkuntza eta Kirol fakultatea.

aniztasun linguistikoa egotea (kasu askotan 12, 13 edo hizkuntza gehiago) geroz eta ohikoagoa dela azpimarratuz. Bestalde, Josep M. Serrak (2002) diotenari erreferentzia eginez gero, hezkuntza elebidunak estatu espainiarrean hedapen handia izan duela jakinarazten digu. Izan ere, bere ideiekin jarraituz, hizkuntza propioa duten autonomia erkidegoei esker, programa elebidun ugari sortu izanaren jakitun gara.

Ideia horiek oinarritzat hartuta, bai Oinarrizko Hezkuntza Curriculum (236/2015) eta baita hezkuntza-sistema hobetzeko sorturiko Heziberrin (2022) ere, arestian aipatu bezala, ados datoz gaur egun elebitasuna eta eleaniztasuna gailentzen direla gure hezkuntzan. Izan ere, horrela azpimarratzen du Heziberrik (2020) Oinarriko Hezkuntza Curriculumaren (236/2015, 4. or.) ideia: “Euskal eskolak elebitasuna bermatzeko duen erronkaz gain, badu beste helburu bat ere: pertsona eleaniztunak lortzea, gutxienez atzerriko hizkuntza bat behar adina dakitenak” (31. or.).

Era berean, hizkuntza-helburuekin jarraituz, ados datoz honako ideiarekin ere:

“Euskarari lehenetsunezko tratua bermatuko zaio, Euskararen Erabilera Normalizatzeari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak aitortzen duen hizkuntza aukeratzeko askatasunaren printzipioa errespetatuko du eta derrigorrezko hezkuntzako ikasketak amaitutakoan, baldintza berberetan, bi hizkuntza ofizialen behar adinako ezagutza praktikoa izateko benetako aukera bermatuko du” (236/2015 Dekretua, 3. or.).

Beraz, elebitasuna eta eleaniztasuna, besteak beste, gure egunerokotasuneko gaiak direla kontuan izanik, garrantzitsua litzateke murgiltze eredia eta mantentze eredia ere bertan sartzea. Izan ere, Serrak (2002) diotenari erreferentzia egiten badiogu, EAEn hedatuenak dauden hezkuntza eredu elebidunak, honakoak dira: familiako hizkuntza mantentzeko eredia eta murgiltze eredu edota programa litzatekeena. Lehenengoa, hau da, mantentze eredia, hauen ama-hizkuntza euskara duten ikasleei zuzenduta dago eta bigarrena, murgiltze eredia, hain zuzen ere, hauen ama-hizkuntza gaztelania edota bertakoa ez den beste hizkuntza bat duten ikasleei zuzenduta.

Kasu horretan, murgiltze-programa edota murgiltze-eredua deiturikoa, zehazki hizkuntza gutxitu bakar batean ematen den hezkuntza da, eta honen helburua, haurrak bigarren hizkuntza hori guztiz barneratzea litzateke, azken helburua bi hizkuntza horiek maila berean hitz egitea edota erabiltzea izanik; hots, elebidun orekatua sortzea. Era berean, informazioa

Gradu amaierako lana. Arabako Hezkuntza eta Kirol fakultatea.

zehazteko asmoz, Manterolaren (2010) ideiarri egingo diogu erreferentzia, izan ere, adibide bat jartze aldera, D eredia murgiltze programa da ama hizkuntza edo lehenengo hizkuntza gaztelania duen pertsona batentzat. Beraz, hori esanda, eta goian aipaturiko mantentze programara berriro ere itzuliz, D eredia ama hizkuntza edo lehenengo hizkuntza gaztelania duen pertsona batentzat murgiltze programa den bezala, ama hizkuntza euskara duen batentzat, D eredia mantentze programa izango litzateke.

4.3 GARAPEN IRAUNKORREKO HELBURUAK

2015eko irailean, 193 herrialdek, Agenda 2030 izenez ezagutzen dena onartu zuten Nazio Batuen Erakundeko (NBE) Batzar Orokorrean. Agenda horrek, Garapen Jasangarriko 17 helburu (GJH), eta mundu eta gizarte osoan zehar kontuan izan beharreko 169 xede ditu.

Garapen Jasangarriko Helburuak, EHUko Unesco Katedra²ren arabera, desberdintasunak murriztea, osasuna eta ongizatea, genero berdintasuna, pobrezia desagertzea, eta ekoizpen eta kontsumo arduratsuak dira besteak beste. Era berean, aipaturiko xede horiek bilatzen dutena, laburki esanda, pertsonen arteko berdintasuna lortzea da, guztien artean erabateko errespetua eta onarpena egonez. Horrez gain, gure planeta babestea eta oparotasuna bermatzea ere bilatzen dute.

Baina, esan bezala, 17 helburu dira Batzar Orokorrean zehaztutakoak, eta alde batera uzten da hizkuntzaren eta kulturaren alorra. Beraz, ikus dezakegun moduan, Agendak, pobrezia lehenengo puntuan egongo litzatekeela adierazten duenez, mundu mailako arazorik larriena dela argi uzten du. Baina, horri ezingo diogu aurre egin tokian tokiko kultura eta baita hizkuntza berezitasunak eta ezaugarriak ere kontuan hartu gabe. Hortaz, Garapen jasangarriko 2030 EHU agendak (2015) zehazturiko 17 helburuez gain, hizkuntza eta kultur aniztasunarekiko konpromisoa gehitu du “17+1” GJHaren bidez (2019-2025).

Hori horrela, “Hizkuntza eta Kultura Aniztasunaren Bermea” izeneko atala dugu, haren barnean “hizkuntza gutxiagotuak dituzten komunitateak ahaldundu eta ezagutarazi identitate desberdinak indartzeko” azpiatala dugun bezala. Hortaz, gai horretan aditua den Kike Amonarriz soziolinguistikariak (2015) ARGIA astekarion Blog modura argitaratutako artikuluari erreferentzia eginez gero, ikus dezakegu hark duen hizkuntzekiko eta batez ere euskararekiko sentibilizazio eta maitasun sutsua, izan ere:

² UPV/EHUren Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedrak ikerketa, formazioa, informazioa eta dokumentazio-lanak garatzeko helburua du Munduko Hizkuntza Ondarea eta haren egoera hobeto ezagutu daitezen.

Gradu amaierako lana. Arabako Hezkuntza eta Kirol fakultatea.

“gure hizkuntzaren zenbat eta baliabide, ñabardura eta osagai gehiago ezagutu, orduan eta adierazkorragoa eta aberatsagoa izango da gure mintzoa eta gure pentsamendua. Eta zenbat eta hizkera gehiagotako euskaldunak ezagutu, zenbat eta hizkuntza gehiagotako jendea ezagutu, jende hori maite badugu, beraien hizkerak eta hizkuntzak ere maitatu beharko ditugu” (Kike Amonarriz, 2015).

Bestalde, euskararen kasua haintzat hartuz, eta Ibon Manterolaren (2018) hitzei erreferentzia eginez, hizkuntza handiak erabiltzen dituzten pertsona horiek, hizkuntza gutxituak ikasten hasten diren unean, sekulako mesedea egiten diote hizkuntza-arloari, eragin zuzen eta positiboa izanik hizkuntzarekiko begirunean. Marti et al.-ek (2005, Manterolak aipatua, 2018) diotenari erreferentzia eginez ere ikus dezakegu “ikasleei heziketa elebidun eta eleanitza ematea onuragarria dela, ez bakarrik gizabanakoaren eta gizartearen garapenerako, baita hezkuntza-sistema berarentzat ere” (216. or.).

Era berean, Garciak eta Idiazabalek (2020) *EKAIA zientzia eta teknologia aldizkarian* diotenari erreferentzia eginez gero ere, euskararen eta batez ere, hezkuntza elebidun eta eleanitzaren alde egiten dutela ikusiko dugu. Izan ere, “euskara izan da EAEn eskola elebidunak lehenengo eta eleaniztunak geroago sorrarazi dituen arrazoi nagusia; sistema elebiduna martxan jarri zenean, sakonki ebaluatu zen, eta emaitzak eskola elebarraketoak baino hobekak zirela frogatu” (11. or.) argi eta garbi uzten baitu.

5. METODOLOGIA

Honako atal honetan, behin marko teorikoarekin amaituta, lehendabizi ikerketan pixkanaka kokatzen joateko, lan honekin lortu nahi diren helburuak zehaztuko dira, eta jarraian helburu horiek lortzeko eta datuen jasoketarako erabili diren metodo zein tresna aipatuko dira. Ondoren, ikerlana aurrera eramatea posible egin duten pertsonak ere deskribatuko dira, ikerketaren partaide izan diren horiek hain zuzen ere, betiere hauen anonimotasuna bermatuz. Azkenik, kontuan izanik erabilitako tresna edota metodoa zein bertako partehartzaileak, ikerlanaren prozesamenduari buruzko xehetasunak azalduko dira.

5.1. HELBURUAK

- Zentroko hizkuntza-errealitatea edota errealitate linguistikoa zein den aztertzea.
- Zentroko eleaniztasun-maila zein den aztertzea.
- Eskolak berak dituen proiektu linguistikoak zein diren ezagutzea.
- Eskolak dituen hizkuntza erronkak eta apustuak ezagutzea.

Euskarari dagokionez:

- Eleaniztasunean euskarak hartzen duen lekua nolakoa den, bai gelan eta baita eskolan ere.
- Zentroan, urteetan zehar gaurdaino, euskarak izan duen bilakaera ezagutzea.
- Familien eta euskararen arteko harremana nolakoa den behatzea eta aztertzea.
- Herria UEMAn herrikide izanik bere errealitateari buruz gogoetatzea.

5.2 IKERKETA-INSTRUMENTUAK

Goian aipatutako helburuak betetzeko tresna gisa, alde batetik, behaketa erabili da, hau da, ni behatzaile izanik, lortu nahi izandako helburu zehatz horiek behatzen aritu naiz etengabe, eta ondoren, behaketa-taula (1.eranskina) bat sortu da, arestian aipatu ditugun helburu horiek ardatz diseinatutako lanabesa hain zuzen ere.

Bestalde, ikerketa helburuak erdietsi eta sakontze aldera berariaz diseinatu dira elkarrizketarako galderak (2.eranskina). Izaera, berez, itxia edo gidatua du; edonola ere, izaera irekia ere badu, elkarrizketaren izaera malgua baita eta elkarrizketatua eroso sentiarazi behar baitu.

Hori horrela, izaera kualitatiboa duen elkarrizketa erabili da. Beraz, aipaturiko ikerketa kualitatibo honek, alde batetik, paradigma interpretatzailea hartzen du bere gain, eta bestalde, paradigma kritikoa dugu. Hala, behaketekin ikastetxearen eta klasearen errealitate linguistikoa

Gradu amaierako lana. Arabako Hezkuntza eta Kirol fakultatea.

ezagutu nahi dugu modu esploratzaile eta deskribatzailean; eta, elkarrizketaren bitartez klasean behatu ezineko elementuak jaso nahi dira, eta, ahal izatera, ahal bezainbeste sakondu, elkarrizketatuek daukaten talaiatik eta esperientziatik.

Flick (2015) alemaniar soziologoak dioen bezala, elkarrizketa betetzen duen pertsonaren edota beteko dutenen pertsonen funtzioa, guztiz aktiboa izango da; testuinguruaren eta baita bilatzen ari den ideiarengatik etengabeko hausnarketa eskatzen baitu. Beraz, hori horrela, elkarrizketak, ikerketa subjektiborako bidea hartzen du, bertan, ideia ezberdinak txertatzen dituelarik, hala nola; sarrera moduan, hizkuntza errealitatea zein den, hizkuntzekiko erronkak zeintzuk diren, besteak beste. Bestalde, euskarari dagokionez, hizkuntza honekiko duten afektibotasuna, erabilera eta motibazioa adibidez, ezagutuko dira.

5.3 PARTEHARTZAILEAK

Elkarrizketa bete ahal izateko, UEMAko ikastetxe bateko hiru langile aukeratuko dira, aldezturik horietako bakoitzak Eskolan bertan betekizun ezberdin bat betetzen duela jakinda. Beraz, ezagutza eta ideia ezberdinak jasotzea eta sakontzea izan da besteak beste elkarrizketa honen helburua, jerarkia ezberdinak ezagutzuz; izan ere, bat Haur Hezkuntzako irakaslea da, bestea, zuzendaria, eta hirugarrenak Haur Hezkuntzako irakasle gisa jarduten du, idazkari lanak egiten dituen bitartean.

Aipaturiko hiru langileak, ondoren ikusi ahalko den bezala, kodetu egin dira, izan ere, lehendabiziko elkarrizketatua, hau da, idazkaria, *I01* bezala ezagutuko dugu; bigarrena, aldiz, irakaslea, hain zuzen ere, *I02* bezala ezagutuko dugu, eta hirugarrena eta azkena, zuzendaria denak *I03* kodea izango du.

Hori horrela, hiru pertsona horiek elkarrizketatzeak ondorengo emaitzetan benekotasuna eta baliozkotasuna ziurtatzea ekarriko du. Izan ere, elkarrizketa egituratu bat pertsona ezberdinekin konbinatzean, triangulazioa lortuko baita. Triangulazioari dagokionez, Lukas eta Santiagok (2016, Santiago *et al.* ek aipatua, 2018) adierazten duten bezala:

“triangulazioak sendotu egiten ditu lortutako emaitzen baliozkotasuna eta sinesgarritasuna, konfiantza handitzen baita irudiaren egitasunean eta lortutako emaitzetan. Triangulazioaren izaera anitzak berak dakar askotan bera beste osagarritasun-estrategia batzuekin batera gertatzea” (54. or.).

Hori alde batera utzita, argi utzi nahi da pertsona hauen anonimotasuna, hasieratik bukaera arte bermatu dela eta bertan ateratako datuak, ikerketa hau gauzatzeko erabili direla soilik.

5.4 PROZEDURA

Arestian esan bezala, behaketa etengabea izan da ikerketa hau egitea posible egin duen tresnetako bat, izan ere, praktikaldiari dagozkion orduak, 300 ordu izan baitira guztira; egunean 6 ordu, eta beraz, astean 30. Ordu hauek, goiz eta arratsaldeko saioetan bete dira, aldeztu aurretik zehaztutako ikerketa-helburuak lortzea ahalbidetuz.

Bestalde, triangulazioa sortzea posible egin duen elkarrizketa eraman da aurrera, eta horren xede nagusia, eskolako errealitate linguistikoaren inguruko ideia eta ikuspuntu ezberdinak eskuratzea da. Baina bereziki euskararekin dagoen harremana aztertzea denez gakoa, ikerketa aurrera eraman ahal izateko, behaketa-pista batzuk zehaztu dira prozesuaren hasieran, pixkanaka behaketa-taulari forma emanaz.

Gainera, aipaturiko elkarrizketa diseinatzeko ikerketaren helburuak behatu eta ideia (kasu honetan galdera) zaparrada bat egin ostean, galdera horien gainean hausnartu da, hausnarketa eta hipotesiak sortzeko aukera izanez. Hala, elkarrizketarako galderak, 18 galdera nagusi izan dira, horien barnean azpi-galdera batzuk sortuz.

Galdera hauek, lau multzotan daude banatuta: lehenengo multzoan, Eleaniztasunari sarrera emateko galderak kokatzen dira, bigarren multzoan ideiei jarraipena emateko galdera zehatzak eta erantzun irekiagoak agertzen direlarik. Hirugarren multzoan aldiz, hizkuntzen eta familien artekoak, eta azkenik, eskolak dituen erronka linguistikoen inguruko hiru galdera agertzen dira.

Langile ezberdin hauek elkarrizketatu ahal izateko, Practicum III-a erabili da, aldeztu aurretik hauen baimena eta prestutasuna egiaztatuz, noski. Hori horrela, kontuan izan beharreko beste puntu bat, sortutako elkarrizketak grabatzeaz gain, transkribatuak ere izan direla aipatzea litzateke, transkribapen horri esker, aldeztu aurretik zehaztutako ikerketa-helburuen arabera etiketa ezberdinak sortu direla gehituz.

6. EMAITZAK

Zati teorikoa zehaztu eta sakon azaldu ondoren, zati praktikoa izango dugu atal honetan. Izan ere, aurretik aipatutako behaketa etengabearen eta elkarrizketa ezberdinen bitartez, emaitza batzuk lortu baitira hauek elkarren artean konparagarriak. Arestian esan bezala, elkarrizketa ezberdinen erantzunak izateak, ondorengo emaitzetan benekotasuna eta baliozkotasuna handituko digu. Hori horrela, hona hemen behaketa eta triangulazio-metodoa erabiliz lortutako emaitzak.

Eskolako errealitate soziolinguistikoari erreparatuz, lehenik eta behin, argi utzi nahi da ikerketa burutu den eskola, D ereduko eskola bat dela, hau da, euskara dela oinarrian den hizkuntza, eta kasu honetan, Haur Hezkuntzako eremuan kokatzen garenez, euskara hutsean garatzen duela jarduna eskolak.

Hori horrela, **hizkuntzen trataera** nolakoa den jakiteko, lehenik eta behin, eleaniztasuna izan da aztertu nahi izan den puntuetako bat. Izan ere, badakigu gaur egun, gure gizartean *aniztasun* hitzak berak sekulako indarra hartu duela, eta zer esanik ez, hezkuntzaren esparruan; kulturaniztasunari eta eleaniztasunari ateak zabalduz. Beraz, hori kontuan izanda, eskolako **eleaniztasun-maila** behatzearekin batera, jatorri ezberdineko haur eta familiak ikusi dira, argi utziz eleaniztasuna onartzen eta lantzen den eskola bat dela. Aitzitik, esan bezala, D ereduko eskola bat da, eta ereduaren ezaugarri eta arauak betez, euskara da alde guztietatik gailentzen den hizkuntza, horrela baieztatzen baitu eskolako idazkariak (ikus 1. aipua):

101: *Guk haur euskaldun eleanitzak nahi ditugu, orduan eleaniztasuna bai, ados, baina euskara ardatz hartuta. Azkenean, ez dakit, oraingo mundu hau, XXI.n mendeko gizarte hau, eleanitza da, orduan beraiek ere behar dituzte gure dekretuan jartzen duen bezala, euskaraz zein gazteleraz mintzatzeko eta idazteko tresnak, eta hirugarren hizkuntza batean ere defendatzeko gai izatea. Baina noski, euskarak daukan egoera kontuan hartuta ere, euskara beti ardatz izatea da gure abiapuntua, zalantzarik gabe.*

1. aipua

Honen harira, eleaniztasuna hitzak berak esaten duen bezala, anitza, askokoa da, beraz, behatzeko izan dudan denbora guzti honetan **hizkuntza ezberdinak ezagutzea aberatsa** dela ohartu naiz beste behin ere. Izan ere, agian haur askok ez dute hauen etxeetan beren ama-hizkuntza ez den beste hizkuntzarik ezagutzen, eta eskolan, gelan bertan eleaniztasuna agerian jartzea eta honi behar besteko garrantzia ematea beharrezkoa dela ikusi dut, hala

egiten baitute eskola honetan. Hari beretik tiraka, I02 elkarrizketatuak ere honakoa dio hizkuntza ezberdinak ezagutzean lortzen den aberastasunaren inguruan (ikus 2. aipua):

I02: *Iruditzen zait hizkuntza berri bat ikasten duzun bakoitzean, kultura eta ohitura desberdinak jasotzen dituzula. Niretzat horrek oso balio garrantzitsuak transmititzen ditu; komunikatzeko eta ulertzeko aukera emateaz gain, aberastasuna ekartzen baitu. Pertsonalki eta kulturalki aberastasuna besterik ez da.*

2. aipua

Bestalde, I01 elkarrizketatuak ezinbestekotzat jotzen du ikasleak aniztasunaren inguruko ezagutzak izatea (ikus 3. aipua):

I01: *Niri pena ematen dit “zenbat hizkuntza ditugu gelan?” galdera egin ta ez jakiteak. Azkenean hori umearentzat sekulakoa da esatea eta jakitea “zure etxean errumaniera egiten da, eta begira, hemen ari zara pixkanaka euskera ikasten, begira ze ondo; horrela gaztelera, euskera eta errumaniera jakingo dituzu” beretzako ere lasaitasun eta harrotasuna da hori.*

Hori iruditzen zait jakin egin behar dutela ikasleek ere, konsziente izan dagoen aniztasunaz.

3. aipua

2. eta 3. aipuetan ikus daitekeen bezala (ikus 2. eta 3. aipuak), eskolak uneoro ematen dio garrantzia ikasleen erosotasun eta ongizateari, izan ere, praktikaldian ikusitakoa birgogoratzuz, haur berri bat datorrenean, lehendabizi, haren segurtasuna eta lasaitasuna bermatu behar dela erakutsi didate beste ezeren aurretik. Ondoren, haurra pixkanaka gelan gainontzekoekin erlazionatzen eta elkartzen hasten dela ikustean, une txiki eta lasaiak (goizeko lehen ordua, adibidez) aprobetxatuko genituzke haur berriaren lurraldeko irudi, informazio eta material ezberdinak lantzeko. Izan ere, une horretan, ekintza enpatiko bat sortuko genuke bakoitzaren interesetatik abiatuz.

Era berean, gelan bertan eleaniztasuna azalerazeak, euskarari laguntzen diola ikusi ahal izan dut, I01ek dioen moduan: *“Horrelako gauzek, euskarari laguntzen diote, hizkuntzekiko jarrera hobetzea dakar; ze batzuetan oso itxita ikusten duzu, ez duela nahi euskara ikasi esanez. Eta horrela, modu honetan, bakoitzak dakiena (ama-hizkuntzak, jatorria) balioztatzen eta baloratu egiten dugu. Beharrezkoa da konturatzea ze zorte daukagun beste hizkuntza batzuk ikasteko aukera izaten.”* (**4. aipua**).

Aitzitik, gaur egun gaztelania bezalako **hizkuntza handi baten ondorioz**, euskararen egoera tenkatu dela argi dago, beldur eta zalantza asko sortuz. Baina nik behatutakoari erreparatuz gero, ez dut ikusi hori horrela izatea egin duten jarrera gehiegirik haurren artean behintzat, baina, honakoa erantzun diote “*Zu hemen zaudenetik euskararen bilakaera zein usten duzu izan dela?*” galderari urte luzeetan eskola honetan lanean diharduten langileek (ikus 5., 6. eta 7. aipuak):

I01: *Euskarari dagokionez, batzuetan kalitateak kezkatzen nau, aiii, ze justukoa, ze eskasa. Eta suposatzen da bere ingurunea ezagututa, eduki beharko lukeela euskara maila on bat.*

Horrek kezkatzen nau gehienbat, pena ematen dit, etxean horrelako errefortzu onak izanda, hain justu egiteak. Horregatik gurasoekin beti, etengabe lanean gaude, ezer kendu gabe, balioztatuz beraiena, baina euskerari indarra eman nahian. Hala ere, suertez, oso eskola euskalduna daukagu guk, eta horretan jarraituko dugu. Horregatik saiatzen gara beti beraiek ere maila horretan, kalitatea lortzen, mantentzen. Orain dela hamar urte, umeak hori ez zeukan, euskera zen indar gehien zeukana, eta gaur egun, umeak beste garai batekoak dira, oso pantailako umeak. Hori asko aldatu da.

5. aipua

I02: *Zentroan esan dute, beno ni hemen 2 urte noa, eta esaten dute nabariagoa dela adinean geroago gazteleraren eragina, hau da, nagusiagoak direnean gaztelerak hauengan duen eragina. Baina nik uste dut herrian ere, geroz eta gehiago entzuten dela gaztelera. Baina gehiengoak, nagusia, euskara da, eta askogatik gainera; eta eutsi egin behar diogu horri.*

6. aipua

I03: *Konparaketa eginez gero, herria egoera onean dago, baina beno, egia da, ni hemen, eskola honetan, 3 urte noala, baina hemen urte luzez dabilzanek esaten dute, ikusten dutela erabilera beheraka doala. Eta udal mailan ere egin zituzten azterketa batzuk, eta datu bitxi bat irten zen: bai nagusiekin eta bai umeekin erabilera jaisten ari zela, baina gazteekin ordea, ez; 15-25 urte bitarte horretan, erabilera altua zela. Baina orokorrean bai, nabaritzen da beherakada, hemen eskolan ere, patioan, nabaritzen da; ni hemen zuzendaritzan nagoela, leihoa irekita izaten dut askotan, eta gaztelera nahikotxo entzuten da.*

7. aipua

Azken elkarrizketatuak (I03) dioen moduan (ikus 7.aipua), kezkarria da **gaztelarak duen euskararen gaineko aginte edota jerarkia-maila** hori. Izan ere, nahiz eta hori horrela dela baieztatzen duten ekintza edota egoera gehiegirik ez ikusi, Practicum IIIko tutorearekin izan dudana elkarrizketan, honakoa esaten zidan (ikus 8. aipua):

I02: *Garrantzitsua da irakasleen kontzientziazioa, hori oso oso garrantzitsua da; eta indar handiarekin aurrera egitea da hemen garrantzitsua, baina eta familiena zer? Familiak geroz eta elebidunagoak dira, eta nola egin lana hauekin? Ze badaude batzuk, bertakoak direnak eta kexatzen direnak esanez, “joe geroz eta gaztelera gehiago entzuten da hauen geletan, ez al da hala?” Baña badakizu bera dela lehenengoa beste batekin elkartzean gaztelerez egiten duena, eta gero kezkatuta daude umeak, gelan haur bat edo bi gaztelerez egiten dutenak daudela eta hauen erruagatik beraien seme-alabak geroz eta gehiago egiten dutela gaztelerez. Baina, norbera ez da konturatzen zenbaterainoko presentzia duen gaztelaniak beraien etxeetan. Haurrentzat erreferente handienak gurasoak dira, eta gurasoek egiten dutena egingo dute hauek; askotan beren seme-alaben gaztelera ohiturez arduratuta datozenean, ardura hori zuri ere erdi gaztelerez komunikatzen dizu... eta gero eskolan ikasten dute gaztelerez?...*

8. aipua

Familia eta gurasoez ari garela, aipatzekoa da askoren jarrera; izan ere, goian aipatu bezala, badaude jaiotzetik horien ama-hizkuntza euskara izan arren gaztelera jotzen dutenak arrazoi ezberdinak medio. Aitzitik, badaude baita ere ama-hizkuntzat euskara ez duten **familiak**, non **euskararekiko jarrera** oso ona den, eta familia horiek sekulako jarrera positiboa erakusten zuten uneoro, bai tutorearekin, bai haurarekin eta baita nirekin ere asko saiatzen baitziren. Hala baieztatzen dute elkarrizketatutako pertsonak ere (ikus 9. eta 10. aipuak):

I03: *Egia da, familiek orokorrean oso jarrera positiboa dutela euskararekiko; gu ere saiatzen gara transmititzen ez dela oztopo bat, baizik eta laguntza bat, gehigarri bat, beti gehitu egin behar dela, eta ez kendu.*

9. aipua

I01: *Oso jarrera ona dute guraso-taldetik; zerbait esaten diezunean beti daude prest. Kanpotik etortzen diren horiek ere kriston jarrera ona erakusten dute beti, ikasteko prest beti. Batzuk eredu dauzkagu gainera, hiruzpalau familia... guztiz euskaldundu*

direnak, AEK-ra eta guzti joandakoak, gogoz. Horiek dute benetan meritua, meritu izugarria. Atentzioa deitzen du, lanketa zoragarria egin dute eta egiten dihardute; eredu dira familia horiek.

10. aipua

Jarraian, familiak alde batera utzita, eskolan bertan jarriko dugu begirada, hauen **hizkuntza-irakaskuntza**rekiko informazioa txertatuz. Izan ere, behatutakoaren arabera, hizkuntzei garrantzi handia ematen dio eskolak, hain zuzen ere, arestian aipatu bezala, hizkuntzak irakasteak komunikatzeko balio izateaz gain, gainontzeko hizkuntzekiko jarrera positiboa izatea, kultura eta ohitura ezberdinak ezagutzea, etorkin bati gure hizkuntza erakustea eta prozesu horretan laguntzea (honekin batera enpatia landuko genuke baita ere) etab. bezalako balioak landu eta eskuratzen baitira.

Hori horrela, kasu honetan, hizkuntzen irakaskuntzari dagokionez, ikasleek behar linguistiko bereziak dituztela ohartu dira. Izan ere, gaur egun, arestian aipatu bezala, *pantailletako haurrak* dira aurrean ditugunak, eta I01ek dioena ardatz, “*bisualki hezitako umeak dira, azkar, informazio azkarra, bisuala asko, eta gero gauzarik sinpleena ere ulertzeko arazoak dituzte*” (**11. aipua**). Gizarteak geroz eta arazo larriagoa izango du horrelako *pantailletako haurrak* dauden heinean. Beraz, praktikaldian ikusi bezala, gailu teknologikoen erabilera izugarria da, nahiz eta eskolan ez erabili, eskolaz kanpoko orduetan erabiltzen dituztela nabarmena baita hauen jarreretan; keinuetan eta hauek erabiltzen dituzten esaldietan, besteak beste. Era berean, horrela gehitzen du I03 elkarrizketatuak:

I03: *Ez dut uste euskararekin soilik gertatzen den gauza bat denik, egia esan, gainontzeko hizkuntzekin baita ere; gazteleraz ere nabaritzen ari da. Azkenean paper gutxiago, irakurmen gutxiago dago. Eta irakurketa irakurtzen lantzen da, praktikatzen, entrenatzen; irakurri, irakurri eta irakurri.*

12. aipua

Hori horrela dela baieztatu dezaket, izan ere, eskolak, arazo hori zehazki ekidin edota behintzat egoera hobetzeko asmoz, txikitatik, hau da, Haur Hezkuntzako etapatik, egunero eskaintzen diote irakurmenari eta ulermenari tartetxo bat. Bestalde, proiektu ezberdinak aurrera eramatea da une honetako **erronka**, izan ere, honen inguruan galdetu zaie eta honakoa erantzun dute (ikus 13., 14. aipuak):

I03: *Ba beno, gu ebaluazioetan ikusten ari gara, bai barneko eta bai kanpoko ebaluazioetan maila jaitzita dagoela; ardua bat da egia esan. Eta horri konponbidea eman nahian gabiltza. Horretarako lehen aipaturiko Proiektuan gabiltza adibidez; azkenean proiektua ez da oso zaila ulertzen, guk maila bakoitzeko ze testu-mota irakurri edota ulertu behar dituzten bai kurtso hasieran, erdian, eta amaieran markatzen dugu. Orduan definituta ditugunean maila bakoitzeko testu horiek, ba izango litzateke urtero-urtero testu horiek sartzen, behatzen eta aztertzen joatea pixkanaka datuak ateraz, eta beharrezko hobekuntzak markatuaz.*

13. aipua

I01: *Irakurketa-Idazketa-Ahozkoan jartzen dugu begirada; horretarako irakasleen artean bateratzea ezinbestekoa da: zer lanketa, nola, maila bakoitzean zer, hori pixkat sistematizatzea da helburua. Eta ondoren datu horiekin gure tresnak sortu, datuak eta emaitzak jaso etab. Horrela ziurtatzen duzu danak berdin, ondo, lantzen ditugula, eta ez bakoitzak nahi duen bezala, baizik eta modu orekatu batean.*

14. aipua

Amaitzeko, hari beretik tiraka, hizkuntzekiko erronka, egindako ikerketa edota proiektuez ari garela, burubelarri dabilzala ikusi ahal izan dut uneoro. Izan ere, astean hirutan aukera izaten nuen idazkariarekin eta tutore ezberdinekin elkartu eta mailako, etapako eta departamentuko bilerak egiteko. Bertan, hizkuntzen gaia zen une horretan gailentzen zena; batez ere, euskararekiko sentsibilizazioa, afektibotasuna eta motibazioa lantzen dituzten proiektu eta asmoak. Hala, oinarritzko proiektu bat aipatu zen, ondoren I03k sakonago azaldu zidana (ikus 15. aipua):

I03: *Eleaniztasunerantz Proiektua, eta hemen bi modalitate daude, gu A modalitatean gaude; batez ere irakurketa-ahozkotasuna-idazketa-entzumena bezalako gaitasunak lantzen ditu A modalitateak. B modalitatea, aldiz, tratamendu integrala emateko proiektua da, baina hemen ez gaude sartuta. Hor irakasgai espezifiko batzuk ingelesez ematera bideratzen dute adibidez. Agian aurrerago animatuko gara baina oraingoz behintzat gure modalitatean jarraituko dugu.*

15. aipua

Gradu amaierako lana. Arabako Hezkuntza eta Kirol fakultatea.

Bestalde, ikasketaburua, tutoreekin, Berritzegunearekin ta EHUko aholkulariarekin batera aurrera eramaten ari den ikerketa aipatu zidaten elkarrizketa batean (ikus 16. aipua):

I01: *Gasteizko EHUrekin egindako ikerketa, irakurketa-idazketa lantzeko eta emaitza horiek hobetzeko azterketa/ikerketa/tresna-sorketa bat da.*

16. aipua

7. EZTABAIDA ETA ONDORIOAK

Egindako ikerketaren ostean, argi eta garbi dago, **hizkuntza errealitatean** edota **hizkuntzaren erabileran**, euskara dela gailentzen den hizkuntza, alde handiz gainera. Izan ere, euskara izan da hizkuntza bakarra irakasleekin eta haurrekin komunikatzeko erabili dena. Familiei dagokionez baita ere, **euskara** izan da oro har erabilitako komunikatzeko bidea, nahiz eta une zehatz batzuetan beharrezkoa izan beren hizkuntzan aritzea. Hala ere, esan beharra dago, familia hauekin euskara ez den beste hizkuntza bat erabili diren egoerak oso urriak izan direla, izan ere, behar-beharrezko uneetan erabili baitira horiek, hala nola; haurraren inguruko arazoren bat komunikatzeko, beharrezkoa den oharren bat komunikatzeko etab.

Gorago aipaturiko lehen hizkuntza euskara ez duten familia horiek erabat babestuta eta onartuta sentitzea hauen helburuetako bat dela argi ikusi ahal izan da. Izan ere, eskola komunitatean, **hizkuntza aniztasunaren aldeko jarrera** positiboak eta, zehazki, familia hauetan hitz egiten diren hizkuntzekiko jarrera positiboak sustatzea eta hauen inguruko **kontzientzia sendotzea** da lortu nahi dena beste gauza askoren artean. Hari beretik tiraka, Crystal (2000) ere ideia honi gehitzen zaio, izan ere, honen arabera, hizkuntza-aniztasuna, landareen eta animalien aniztasuna defendatzen den modu berean defendatu beharko bailitzateke.

Izan ere, espezieei denboran zehar irauteko aukera ematen diena dela azaltzen du eta horri esker, oso aberatsa den aniztasuna dugula esateko aprobetxatzen du baita ere. Modu horretan, arestian esan bezala, dugun hizkuntza-aniztasuna zenbat eta anitzagoa izan, orduan eta aberatsagoa izango da gizartea hizkuntza eta kultura aldetik. Izan ere, aberastasun horrek hizkuntzekiko jarrera hobetzea ekarriko du beste onura batzuen artean, eta kasu honetan, euskara hizkuntza gutxitua den aldetik, sekulako mesedea egingo dio; guztiona balioztatuz eta errespetatuz, mesede egiten baitiogu elkarri.

Era berean, Azurmendi eta Luquenek (2006) diotena gogoratuz, **familiaren hizkuntzak** eta zehazki, euskararen erabilerak, euskarako frogetan ez ezik, gainontzeko hizkuntzetan ere eragin positibo, garrantzitsu eta esanguratsua izan dezake. Hala, hori gutxi balitz, euskararen garrantziaz jabetzeko ekimenak eta beren ezagutza ahalbidetzen duten baliabideak eskaintzen dira, ipuin eta jolas ezberdinak etxeetara zabalduz, eskolan bertan Xuxurlari edota itzultzaile lanak egiteko hainbat familia eskainiz (familia-etorkin bat oso galduta datorrenean beste familia batzuekin elkarlanean jarduten dugu), besteak beste. Bestalde, haurrei

zuzendutako IPI figura dago; ikasle-etorkinak datozenerako irakasle-laguntzailea hain zuzen ere.

Hizkuntzei dagozkion erronkei amaiera emanez, erabilpena eta gaitasuna bera lantzen dabiltzala zehaztu nahi da; eskolan, akademikoki esan dezagun, batez ere proiektuak dituzte bideratuta irakurketa, idazketa, ahozkotasuna, eta entzumena lantzeko helburuarekin. Erronkak alde batera utzita eta lan honen hitz-gako garrantzitsuenari erreferentzia eginez gero, nire ustez, gainontzeko lekuetan faltan somatzen da eskola honetan duten **euskararekiko sentsibilizazio, afektu eta motibazio** hori. Izan ere, 0-3 urte arteko haurrek, hizkuntzak ikaskuntzaz baino jabetzaz gehiago bereganatzen dituzte, eta hori horrela, adinean zenbat eta aurrerago hasi euskara irakasten, orduan eta zailagoa izango zaio haurrari hizkuntza bereganatzea.

Bestalde, badakigu aipaturiko haur hezkuntzako etapan, afektiboki euskarara hurbiltzeko saiakera horretan, haurraren mundu sinbolikoa erabiltzea oso modu eraginkorra dela. Izan ere, hizkuntza pertsona eta leku jakin batzuekin identifikatzeak, sekulako garrantzia du, oraindik orain, euskarak soziolinguistikoki jasaten ari den egoera dela-eta. Hori gutxi balitz, euskararekiko atxikimendua sendotu eta ondorengo ikasketa prozesuan lagunduko luke.

Eskolatik etxera salto txiki bat eginez, arestian aipatu bezala, etxeko hizkuntza oso kontuan hartzen dutela ikusi ahal izan da uneoro. Izan ere, alderdi emozional hori zainduz, haurra onartua, maitatua eta baloratua sentiaraztea hauen helburuetako bat da. Lehenago aipatu bezala, ikasle etorkin hori onartua eta errespetatua den heinean, euskarari mesede egingo dio; izan ere, euskararen ezagutzarako eta euskal kulturaren parte izateko motibatua egotea beharrezkoa baita. Bide beretik jarraitzen dio ideia honi Ibon Manterolak (2018), esanez, hizkuntza gutxituak ama-hizkuntzat ez dituzten pertsonen, hizkuntza horiek ikasteak eragin positiboa duela hizkuntzarekiko begirunean.

Bestalde, maiz, inguruan, eskolaren babesa bermatzen ez bada, etxearen eragina indargabetu egin daiteke. Baina, alderantziz ere gertatu daiteke, izan ere, gaztelera ama-hizkuntza duten ikasleek, D eremuan, euskaldunek jarraitzen dituzten pausu eta prozesu berdintsuak jarraituz gero, euskararen emaitza egokiak lortzea posible izango litzateke, eta horrek, Azurmendi eta Luqueren (2006) arabera, horien ama-hizkuntza ez den beste hizkuntza batzuen ikaskuntzari lagun diezaioke. Hori horrela, ondoriozta genezake, bata bestearen beharra duela.

Aitzitik, ondorioen atalari amaiera emateko, ondorio on eta positibo horien ostean, beharrezkoa iruditzen zait honakoa azalera eta hausnarketarako bide bat irekitzea, izan ere, gaur egun, erlaxatuegi bizi garela esango nuke, orokorrean, bizitzarekiko gehiegizko erlaxazio edota erosotasun etengabe bizi garela hain zuzen ere. Hori horrela izanik, erlaxazio horrek hainbat esparru edota gai ukitzen ditu, horietan eragin onuragarriak baino, kaltegarriak gehiago izanik, eta hizkuntza, gure kasuan euskara, horietako bat da.

Izan ere, gizarte mailan, familiari dagokionez, garai bateko euskararekiko militantzia galtzen gabiltzala esango nuke. Garai batean, gogorregi borrokatu zen euskara gure artean egoteko. Hala baieztatzen du Kike Amonarrizek (2019): “Gutxiengo honek, XX. mendean sutuki lagundu zuen euskararen aurrerapenean, izan ere, mende hartako berreskuratze-prozesuan eta kultur sustapenean eragin handia izan baitzuen, minoria honi esker, euskara batua, Berria egunkaria eta euskal hedabideak, euskaltegiak, euskarazko irakaskuntza... baititugu” (61. or.).

Lan handia egin zen, eta orain bizkarra ematea edota alde batera uztea sekulako kaltea izango litzateke gure lurraldearentzat; arestian esan bezala, Moreno Cabrerak (2000, Oskia Ollakarizketak aipatua 2019) argi du, beraren ustez, sekulako hondamendi kulturala izango bailitzateke hori. Ondorengoek, guk geuk, beti jaso izan dugunez euskara, normaltzat hartu dugu, naturaltzat, arnasa hartzea bezain gauza soil eta erraztzat, baina hori ez da horrela; zaindu behar den zerbait da, gure altxorra, gure nortasuna baita. Izan ere, ARGIA astekariak (2010) elkarrizketatutako Julen Arexolaleibak honela dio: “hori da gakoa, denboran iraunkortzea. Gure artean badakigu euskara ez dela izan zabalkundearen kultura, iraunkortasunarena baizik”.

Hori horrela, askotan, arazoa kanpoko arazotzat hartu izan da, baina, maiz, etxean, geurean dago arazoa. Izan ere, Igartzabalek (2015) adierazten duen bezala, hizkuntza bat baino gehiago elkarrekin bizi direnean, gure kasuan gaztelania eta euskara oro har, maiz hautaketa egitea gertatzen da, estres linguistiko izena hartuz. Era horretan, norbera ez da konturatzen zenbaterainoko presentzia duen gaztelaniak gaur egun beren etxe eta kaleetan, eta batzuetan, noski, saihestezina da, arestian esan bezala, geroz eta kulturantzitasun handiagoa baitago. Baina horrez gain, aitona-amona asko daude beren garaian euskara ikasi ez zutenak, eta horiekin gaztelaraz egiten duten familiak. Aitzitik, beste asko eta asko daude gaztelararen eraginez guztiz erdaldunduta. Ideia honekin jarraituz, I03 elkarrizketatuaren (ikus 8. aipua) esaldi deigarria utziko dut hausnarketa-bide: “*askotan beren seme-alaben gaztelera ohiturez*

arduratuta datozenean, ardura hori zuri ere erdi gazteleraz komunikatzen dizu... eta gero eskolan ikasten dute gazteleraz?"

Argi utzi nahi da haurrentzat erreferente handienak gurasoak direla, eta gurasoek egiten duten hori egingo dutela hurrek ere; Jauregiren (2003) ustetan, arestian aipatu bezala, etxeak eskolak baino indar handiagoa du eta ez du hizkuntzako hutsune hori estaltzeko indar nahikorik. Izan ere, eskolak ezin du etxeak bermatu ez duen hori ez estali ezta ordezkatu ere. Bestalde, jada helduak garenok, geurea defendatu behar dugu, baloratu, geure-geure egin, euskara eta euskaraz maitatu; izan ere, ARGIA astekariak dioena ezin dugu ahaztu: "Euskara maitatzen eta hitz egiten aberasten garenak, gehiengoa izatea lortu behar dugu" (ARGIA, 2009-08-20). Bestalde, Kike Amonarrizek haren *Euskararen Bidegurutzetik* liburuan aipatzen duen sua ere mantendu egin behar dugu, uneoro, izan ere "Su horrek mantendu gaitu bizirik, eta su hori gabe nekez egingo dugu aurrera" (Kike Amonarriz, 2019, 61.or).

8. MUGAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Horrelako ikerketa eta txostenak egiterakoan, garrantzitsua da lanak berak sortutako mugak zehaztea eta etorkizun baterako iradokizunak sortzea. Izan ere, hasieran agian, ikerketa modu batean antolatzen da baina aurrera eramaten ari garen bitartean, eta hura amaitzean, beharbada ez ditugu nahi beste datu edota aurrez ezarritako emaitzak lortu.

Beraz, lanaren azken produktua ikusita, esan beharra dago hobekuntza batzuk identifikatu direla; adibidez, prestaturiko galdera-sorta hori, denboraz lasaiago ibili eta gehiago zabaltzea gustatuko litzaidake. Izan ere, pertsona gehiagorengana zabaltzea egokia litzatekeela iruditzen zait; zenbat eta informazio gehiago, orduan eta kontrastatzeko aukera gehiago izango bainuke, eta hortaz, emaitza anitz eta aberatsagoak izango nituzke.

Hori horrela, esan, eskolako langile gehiagori egitea gustatuko litzaidakeen moduan, gurasoengana zabaltzea ere interesgarria iruditzen zaidala, izan ere, lanean zehar familien alorra asko ukitu baita, hauen papera oso garrantzitsua izanik. Beraz, elkarrizketa *mordoxka* egin beharko nituzke, baina egia esan, izugarri gustatuko litzaidake, izan ere, euskararen inguruko horrelako ikerketa eta lanak egitea asko gustatzen baitzait.

Horrez gain, interesgarria izan daiteke baita ere, hemendik lau zapabost urtera edo, ikerketa berdina egitea, eta ondoren, orain egindako ikerketa honekin kontrastatzea. Izan ere, ikerketa-helburuetako bat, euskararen egoera aztertzea izanik, urteetan zehar euskararen bilakaera nolakoa izan den berrikustea beharrezkoa litzateke. Modu horretan, belaunaldi berrien eta zaharren artean desberdintasunik ba al dagoen eta zertan dagoen jakin ahal izateko.

Aldiz, nire mesedetan, aurrez prestaturiko galdera-sorta, egokia eta osatua dela esango nuke; izan ere, aztertu nahi izan diren alderdi guztiak jasotzen baititu. Horrez gain, galderek, informazio sakona eta bai zehatz eta baita orokorra emateko ere pentsatuta egin dira, izan ere, ez dira galderak “bai” edota “ez” erantzutekoak, beraz, jokua ematen duten galderak sortu ditudala esango nuke.

9. ERREFERENTZIAK

- Aldecoa, M. Asuncion. (2011). *Euskararen normalizazioa hezkuntzan (2000-2010):Ulibarri Programa, Euskarri teorikoa, Metodologia eta faktore azalgarriak*. Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU), Bilbao.
- Amonarriz, K. (2015eko irailaren 9a). Kike Amonarriz: Hizkuntzak maite dituen jendea [Blog bateko mezua]. *Algara, edo ez gara, Umoreaz eta hizkuntzez*.
- Aizpurua, J. (2016). Euskararen bilakaera 1991-2016. *Hermes: pentsamendu eta historia aldizkaria= revista de pensamiento e historia*, (57), 30-33.
- Aizpurua, J., Altuna, J., Altuna, O., Anduaga, E., Anduaga, U., Azurmendi, N., Garaio, B., Goikoetxea G., Gorri, E., Hernandez, J., Isasi, X., Kasares, P., Martinez, I., Penman, R.(2018). Euskal Soziolinguistikaren 2016ko datu estatistikoak. **BAT aldizkaria**, 106 (1),1-227.
- Altuna, O., Iñarra, M., Basurto, A. (2021). *Hizkuntzen erabileraren kale neurketa: Euskal Herria, 2021*.
- Amonarriz, K. (2019). *Euskararen bidegurutzetik*. Elkar.
- Barreña, A., Uranga, B., Idiazabal, I., Izagirre, E.; Amorrortu, E., Ortega, A. (2005). *Europako hizkuntzak. UNESCO etxea*.
- Beldarrain, A. (2012). *Proiektuan Oinarritutako Ikaskuntza Metodologiaren Inplementazio Proposamena*. IKD baliabideak. Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)
- Cenoz, J., Gorter, D. (2017). Minority languages and sustainable translanguaging: threat or option?. *Journal of Multilingual and Multicultural Development*, 38(10), 901-912.

Coyos, Battittu. *Hizkuntza ukipena*. Auñamendi Entziklopedia [on line], 2022.

(Kontsulta data: 2022ko Ekainaren 9a).

Crystal, D., & Bernárdez, E. (2006). *La Revolución del Lenguaje*.

Egusquiza, J. (2021). *Tokian tokiko hizkuntzak eskolan: Derioko euskara ikasteko proposamena*. (Master amaierako lan argitaratu gabea). Bilboko Hezkuntza Fakultatea, Leioa.

Euskararen Datu Basea (2021). Euskal Herriko hezkuntzako datuak lurraldeka.

Euskara Institutua, EHU (d.g). *Diglosia*. Sareko Euskal Gramatika (SEG).

Euskara Institutua, EHU (d.g). *Ukipenaren ondorio indibidualak*. Sareko Euskal Gramatika (SEG).

Euskara Institutua, EHU (d.g). *Ukipenaren ondorio linguistikoak*. Sareko Euskal Gramatika (SEG).

Euskara maitatu. (2009ko Abuztuaren 20a). **Argia**.

Eustat, 2021: Euskararen Datu Basea (2021). Euskal Herriko hezkuntzako datuak lurraldeka.

Fernández, Iñigo. (2012). Hizkuntza gutxituen eraginkortasuna pertsuasio prozesuetan. Euskararen kasua EAEn. *BAT aldizkaria*. 85(4), 11-73.

Flick, U. (2015). *El diseño de Investigación Cualitativa*. [Colección de Investigación Cualitativa]. Morata.

García, I., Idiazabal, I. (2021). Garapen Iraunkorrerako Helburuei so hizkuntzen betaurrekoekin. *Ekaia*. Ale berezia. 277-296.

Gartziarena, M., Altuna, J. (2021). Hegoaldeko Haur eta Lehen Hezkuntza graduetakoa ikasleen eleaniztasun-usteak. *Tantak. EHUko Hezkuntza Aldizkaria.*, 33(1), 165–181.

Gipuzkoako Foru Aldundia. *Garapen Jasangarriko helburuak.* (d.g).

Haro, I. (2006). Globalizazioa eta hizkuntza gutxituak. Aukerak eta arriskuak.

Igartzabal, I. (2015). Jarreretatik portaerak ulertu nahian. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 97(4), 121-138.

Iriarte, O. (2019). *Eskolan euskararekiko eta hizkuntza gutxituekiko jarrera positiboak sustatzen: sekuentzia didaktiko baten oinarriak.* (Master amaierako lan argitaratu gabea). Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU).

Juaristi, Patxi. (2017). *Hizkuntza-komunitateak harremanetan Euskal Herrian: balio etikoetan oinarritutako diskurtsoaren beharra.* Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU).

Letona, X. (2010ko martxoaren 28a). Euskal Kulturaren transmisioa. **ARGIA**.

Manterola, I. & Berasategi, N. (2011). Hizkuntza gutxituen erronkak. Bilbo: UEU.

Navascués, M., Iurrebaso, I. (2019). *Diglosia eta endodiglosia arnasguneetan. Ondarroako nerabeen hizkuntza-gaitasuna eta erabilera-ohiturak: euskara eta gaztelania; batua eta tokiko euskara.*, 64(2), 585-621.

Real Academia De La Lengua Vasca. (d.g).

Sanginés, G. *ARGIA* astekarian eginiko elkarrizketa. 2013ko abenduaren 15a.

Santiago, K., Jimenez O., Mujika L. (2018). *Metodo mistoak Hezkuntza-ikerketan.* *Tantak*, 30(1), 87-111.

Sastre, J. (2019). *Elebitasuna eskolan: zer leku du ama-hizkuntzak?*. (Gradu Amaierako lan argitaratu gabea). Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU), Vitoria-Gasteiz.

Soziolinguistika Hiztegia. (2010). *Soziolinguistika Hiztegia: Euskal Soziolinguistikaren eremuan erabiltzeko*, Vitoria-Gasteiz.

Soziolinguistika Klusterra (2010). *Soziolinguistika eskuliburua*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Soziolinguistika Klusterra. (2016). *Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa: Euskal Herria, 2016*.

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea. (2017ko Azaroaren 7a). *Nor Gara*.

UPV/EHU-ko Munduko Hizkuntzen Ondareari buruzko UNESCO Katedra. (d.g).

Uriarte, C. (2014). *Heziberri 2020: Hezkuntza-eredu Pedagogikoaren markoa*. [Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburua]. Eusko Jaurlaritza.

Zalbide, M. (2009). *Interferentzia, hiztun garbien galera eta mintzaldaketa: Hiriart-urritiren garaiko zenbait korrelato*.

Zalbide, M. (2016). Diglosiaren purgatorioaz. Teoriatik tiraka. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 79-80(3), 13-152.

Zamakola, M. (2019). *Euskararekiko jarrerak aztertzen*. (Gradu Amaierako lan argitaratu gabea). Hezkuntza eta Kirol Fakultatea (EHU), Vitoria-Gasteiz.

Zarraga, A., Coyos, J., Hernández, J., Larrea, I., Martínez, L., Uranga, B., Bilbao, P. (2010). *Soziolinguistika eskuliburua*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Gradu amaierako lana. Arabako Hezkuntza eta Kirol fakultatea.

Zupiria, B. (2020). *VI. Mapa Soziolinguistikoa 2016*.

Zupiria, B., Ollo A., Arrabit, B. (2019). *VI. Inkesta Soziolinguistikoa 2016*.

Zu zeu. (2013ko urtarrilaren 7a). *Euskararen tamaina munduko hizkuntzen artean. ?*

[Mezua blog batean].

237/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculum zehaztu eta

Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa. Euskal Herriko agintzaren

aldizkaria, 2016ko urtarrilaren 15a, zk. 9, pp. 1-47.

ERANSKINAK

1. BEHAKETA-TAULA

- *1. euskaraz egiten du beste hurrekin
- *2. gazteleraz egiten du beste hurrekin
- *3. beste hizkuntza batean egiten du hurrekin
- *4. euskaraz egiten du tutorearekin
- *5. gazteleraz egiten du tutorearekin
- *6. beste hizkuntza batean egiten du tutorearekin
- *7. guztia ulertzeko gai da euskaraz
- *8. familiako hizkuntza-erabilera nabari da
- *9. haur zehatz batekin/batzuekin gaztelerara igarotzen da

HAURRA	GELAN	PATIOAN	ESKOLAZ KANPO
H1	1, 4, 7, 9	1, 4, 7, 8, 9	2, 5, 7, 8, 9
H2	1, 4, 7, 8	2, 4, 7, 8	2, 5, 7, 8, 9
H3	1, 4, 7, 9	1, 4, 7, 9	2, 1, 7, 8, 9

2. ELKARRIZKETA-GALDERAK

- Ze eginkizun duzu eskola honetan ?

→ ELEANIZTASUNARI SARRERA

◆ Usteak:

- 1. Zer da zuretzat eleaniztasuna?
- 2. Ze balio du zuretzat eleaniztasunak?
- 3. Ze leku izan behar du euskarak eleaniztasunean, zure iritziz? Zer leku du zuen klasean? Eskolan? Eta herrian?
- 4. Ze erronka ikusten dizkiezu hizkuntzei? Euskarari?

Gradu amaierako lana. Arabako Hezkuntza eta Kirol fakultatea.

- 5. Ze balio ematen diote zuen ikasleen familiek eleaniztasunari? Eta euskarari? Ze iritzi dute hizkuntzei buruz? Eta euskarari buruz?
- 6. Zenbat hizkuntza daude euskaraz gain? eleaniztasun-maila zenbatekoa da?
- 7. Zentroak/Zuk lagundu du(zu) ama-hizkuntza ez den hizkuntza, kasu honetan euskara, erabiltzen edota sustatzen? nola?
- 8. Nola jokatzten duzu euskara ez den hizkuntza baten aurrean? hizkuntza horretara jotzen duzu edo euskaraz egiten diozu?
- 9. Uste duzu haur horiek gelan hizkuntza bat erabiltzen dutela eta gelaz kanpo beste bat? ze kasutan adibidez? zergatik?
- 10. Zentroaren hizkuntzekiko apustua zein da? eta betetzen dela uste duzu?
- 11. Euskararen bilakaera zentroan nolakoa ari da izaten? eta gelan? hiztun gutxiago eta kalitate gehiago? edo alderantziz?
- 12. Hizkuntzaren erabilera/trataera: zein hizkuntzatan?
- 13. Mantentze ereduaz zer diozu?

→ FAMILIAK

- 14. Hizkuntza eta gurasoak: saiatzen zara euskaraz hitz egiten beraiekin? beraiek euskara hitz egitera bultzatzen dituzu? nola?
- 15. Guraso-irakasleen arteko harremana aldatu egin al da azken hamarkada edo urteotan? Azal zenezake?
- 16. Hizkuntza kontuetan zein dira familien jarrerak? Aldatu egin dira garai bateko gurasoekin alderatuta? Zertan? Zentzu horretan ze erronka detektatzen dituzu gaur egun? Eta etorkizunari begira, zein aurreikusten dituzu?

→ ERRONKAK

- 17. Ze erronka duzue hizkuntzen irakaskuntzarekin? Ikusten duzu ikasleek behar linguistiko bereziak behar dituztela edo hizkuntzaren batean gabeziak dituztela?
- 18. Hizkuntzari dagokionez, ze metodologia dago klasean? komunikatzailea? tradizionala? proiektu bidezkoa? Eta horrek laguntzen dio ahozkoari eta euskarari?

3. HAUTATURIKO ELKARRIZKETA

- **Ze eginkizun duzu eskola honetan ?**
Haur Hezkuntzako irakaslea, tutorea.
- **Zer da zuretzat eleaniztasuna?**
- **Ze balio du zuretzat eleaniztasunak?**

Gradu amaierako lana. Arabako Hezkuntza eta Kirol fakultatea.

- **Ze leku izan behar du euskarak eleaniztasunean, zure iritziz? Zer leku du zuen klasean? Eskolan? Eta herrian?**
- **Ze erronka ikusten dizkiezu hizkuntzei? Euskarari?**
- **Ze balio ematen diote zuen ikasleen familiek eleaniztasunari? Eta euskarari? Ze iritzi dute hizkuntzei buruz? Eta euskarari buruz?**

Eleaniztasuna hizkuntza desberdinak erabiltzea; elebiduna egiten gaituena.

Nire ustez, eleaniztasunak balio handia du, komunikatzeko balio duelako, bai pertsonekin, bai kulturekin, bai ohiturekin...

Ze hizkuntza bat ikasten dugunean ez da hizkuntza bat bakarrik, kultura bat jasotzen baitugu, eta niretzat hori oso aberatsa da.

Ni harremanetan 3 hizkuntzekin egon izan naiz, ingelesarekin ez hainbeste baina bai, esango nuke hiru hizkuntzetan jardun izan naizela. Pentsatzen dut jasotzen dela bueno euskara eta gaztelera, eta ingelesa apur bat, eta frantsesa ere ikasten hasi nintzen. Iruditzen zait hizkuntza berri bat ikasten duzun bakoitzean, kultura eta ohitura desberdinak jasotzen dituzula. Neretzat horrek balio oso garrantzitsuak transmititzen ditu, komunikatzeko eta ulertzeko aukera emateaz gain, aberastasuna ere ekartzen du; kulturalki aberastasuna besterik ez da.

Noski, gero hemen gu bizi garen lekuan, ofizialtasuna bi hizkuntzek dute, euskarak eta gaztelaniak, baina bizi zaren lekuaren arabera desberdina da.

Ni Gasteizen, Oñatin eta Zumaian egon naiz lanean eskoletan, eta oso errealitate ezberdinak bizi izan ditut.

Ez du zerikusirik, hemen euskara da hizkuntza nagusia, eta gasteizen ez, eta orduan, trataera ere desberdina izan behar da; ze haur horiek lortu behar badute bi hizkuntza ofizialetan maila bera, niretzako lekuaren arabera bat edo bestea indartu behar da. Euskara minoritarioa da nolabait, gaztelaniarekiko desabantaila du; ze gaztelania ez ikasita ere ikasten dute haurrek, ez agian akademikoki baina bestela bai. Adibidez Gasteizen garbi dago, han ez baduzu lantzen, hizkuntza ez dela lortzen, eta ez dela indartuko hizkuntza.

Hemen, hemengo errealitatea oso bestelakoa da, baina minoritarioa denez bai errefortzatu behar da, eta eskerrak, hemengo familiek euskerari garrantzia handia ematen diote.

- **Zenbat hizkuntza daude euskaraz gain? eleaniztasun-maila zenbatekoa da?**
- **Zentroak/Zuk lagundu du(zu) ama-hizkuntza ez den hizkuntza, kasu honetan euskara, erabiltzen edota sustatzen? nola?**
- **Nola jokatzeko duzu euskara ez den hizkuntza baten aurrean? hizkuntza horretara jotzen duzu edo euskaraz egiten diozu?**
- **Uste duzu haur horiek gelan hizkuntza bat erabiltzen dutela eta gelaz kanpo beste bat? ze kasutan adibidez? zergatik?**
- **Zentroaren hizkuntzekiko apustua zein da? eta betetzen dela uste duzu?**

- **Euskararen bilakaera zentroan nolakoa ari da izaten? eta gelan? hiztun gutxiago eta kalitate gehiago? edo alderantziz?**
- **Hizkuntzaren erabilera/trataera: zein hizkuntzatan?**
- **Mantentze ereduaz zer diozu?**

Hemen eskolan, euskara, gaztelania eta ingelesa daude.

Baina beno garbi dago gu HHn egonda euskara dela nagusia.

- **Nola jokatzeko duzu euskara ez den hizkuntza baten aurrean? hizkuntza horretara jotzen duzu edo euskaraz egiten diozu?**

Nik desberdin jokatzeko dut haurrekin eta familiekin; familiekin saiatzen naiz agurrak eta behintzat euskeraz egiten, baina komunikatzeko modu bakarra hizkuntza denez kasu honetan, ulertu gaitzen beraien hizkuntzara jotzen dut maiz.

Hala ere, baldin badakit ulertzen dutela, saiatzen naiz euskeraz egiten, nahiz eta beraien beren hizkuntzan erantzun.

Eta haurrekin, bi hizkuntzak erabiltzen saiatzen naiz; lehenengo ziurtatzen dot atxikimendua, atxikimendua lehenik eta behin beraien hizkuntzan, eta atxiimendu hori iada eginda dagoenean, eta euskara ulertzen doazen heinean, behintzat belarria eginda daukaten heinean, euskera geroz eta gehiago txertatzen dut.

Neretzako inportantia da, ze afektua oso inportantia da hizkuntz batekin ari zarenean, eta haurrak zenbat eta txikiagoak izan, orduan eta gehiago; beti alderdi emozionala kontutan hartzea derrigorra.

Orduan zurekin atxikituta baldin badaude eerezagoa da hizkuntza hori erabiltzea, eta ezin badute ezin dute, baina ahalegina leheni eta behin gurea da; ba bi aldiz esan → “etorri hona- ven”, “ulertu didazu?” -me has entendido?”

Ulertu arte horrela, ziurtatuz ulertzen garela elkar.

- **Uste duzu haur horiek gelan hizkuntza bat erabiltzen dutela eta gelaz kanpo beste bat? ze kasutan adibidez? zergatik?**

Bueno HH-koa da familiarik datorrena, familia-hizkuntza deituko geniokena. Orduan, kalean segun ze lagun eta inguru duten; eta gelan dakitena behintzat euskeraz egiten dute.

- **Euskararen bilakaera zentroan nolakoa ari da izaten? eta gelan? hiztun gutxiago eta kalitate gehiago? edo alderantziz?**

Zentroan esan dute, bueno ni hemen 2 urte nua, ta esaten dute nabariagoa dela adinean geroago gaztelaren eragina, hau da, nagusiagoak direnean gaztelarak hauengan duen eragina. Baina nik uste dut herrian ere, geroz eta gehiago entzuten dela gaztelera. Baina gehiengoak, nagusia, euskera da, eta askogatik gainera; eta eutsi egin behar diogu horri.

Gradu amaierako lana. Arabako Hezkuntza eta Kirol fakultatea.

- -Bai nei irakasleak komentatu dit, iual kalitatia dala jaitsi dana; ze nahizta etxian euskera entzun, gero hona etorri eta ulermenian eta irakurmenian eta arazuak daudela.
- -Bai izan daiteke, azkenean gutxiago irakurtzen da, guztia pantailetan, irakurmen edota bista azkarra, bisuala dute. Gizarteak du hemen eraginik handiena, nola doan, gizartearen bilakaera; hizkuntzekiko nikustet gazteleran ere nabarituko dela, nahiz eta hizkuntza ofizial eta handi bat izan, ez irakurtzeko ohitura hau nabarituko dela ondoren irakurmen, ulermen.. gaitasunetan. Informazio pila bat jasotzen da pantailen bidez, gauza onerako gehiegi.

- Hizkuntzaren erabilera/trataera: zein hizkuntzatan?

Euskaraz, eta trataera nikuste det egiten dala gero ezta gehiago, zabalago, eskolan adibidez, ingelesa sartzen dala, “vehicularra” izatia nahi dala;

- Ze esan nahi du horrek?
- Ba daudela proiektu batzuk ba hiru hizkuntzetan ematea nahi dutenak gai bat adibidez, hori Oñatin egiten da adibidez.
Beti euskerak garrantzi handiena izango du, noski.

- Mantentze ereduaz zer diozu?

Dudik ere ez ze garrantzitsua dan mantentze eredu hori ematia, dakitenei errefortzu ahalik eta handiena ematia ze garrantzitsua dan, ta bakoitzak berai eustia, mantentzia bakoitzan ama-hizkuntza; batzuntzat orduan euskarari dagokionez mantentze-eredua izango da, eta beste batzuentzat murgiltze eredu, ez? Oposizioarekin ez da ezer lortzen, egin behar dena da batu, ez kendu.

Inportantea da irakasleen kontzientziarioa, hori oso oso inportatea da; eta indar handiarekin aurrera egitea da hemen garrantzitsua.

Ze familiak geroz eta elebidunagoak dira, eta gero baita ere nola egn lana hauekin ez? klaro, askotan... ze batzuk badaude, bertakoak direnak eta kexatzen direnak esanez: “ joe geroz eta gaztelera gehiago entzuten da, ez al da hala?”

Baña badakizu bera dela lehenengoa beste batekin elkartzean gazteleraz egiten duena, eta gero kezkatuta daude umeak, gelan dagoelako bat edo bi gazteleraz egiten dutenak, hauen erruagatik beraien seme-alabak geroz eta gehiago egiten dutela gazteleraz. Baina, norbera ez da konturatzen zenbaterainoko presentzia duen gaztelaniak beraien etxeetan. Eta batzuetan inebitablea da, ze aitona-amon asko daude ez daktenak euskeraz, eta horiekin gazteleraz egiten dutenak, baina beste asko eta asko daude influentziatuta daudenak beste askorekiko.

Baina haurrentzat erreferente handienak gurasoak dira, eta gurasoek egiten dutena egingo dute hauek; orduan askotan arduratuta datozenean, ardura hori zuri ere erdi gazteleraz komunikatzen dizu... eta gero eskolan ikasten dute gazteleraz?

Gradu amaierako lana. Arabako Hezkuntza eta Kirol fakultatea.

- Bai, kontraesan pila bat ezta?
- Bai, nire ustez, familian gizarte bezala euskararekiko galtzen gabiltza militantzia hori; garai baten bururatu egin zan euskera egoteko, eta oso militantea zan jende hori. Eta ondorengoak, beti jaso izan duenez euskara, normaltzat hartu du, naturaltzat, arnasa hartzea bezala, baina hori ez da horrela; zaindu behar den zerbait da, nik uste dut gizarte mailan, esan bezala, galtzen ari den zerbait dela; erlaxazio hori igarri egiten da, gehiegizkoa izaten ari baita nire ustez.

- Ze erronka ikusten dizkiezu hizkuntzei? Euskarari?

Ba apurtxo bat esan dotena, ama-hizkuntzen arabera, gabezia batzuk izango dituzte linguistikoki hitz eginda, eta segun ze ingurune duten, Hemen ere erlaxatu ez gara erlaxatu behar.

- Ze metodologia dago?

HHn ez dago metodologia berezirik, harremana egotea da giltzarria, hizkuntzarekin, kasu honetan euskararekin harreman zuzen eta etengabea egotea, ahal den heinean behintzat dana egitea hizkuntza horretan.

- Ongi da, eta gehiena ahozkoa ezta?
- Bai, dudarik gabe, ahozkoa eta horrekin batera kulturako gauzak, gauza kulturalak, ohiturak...

Neretzako inportantea da ohartzea eta ez ahaztea, ume hoiek afektu bikoitza behar dutela; gero hizkuntza ere maitatu ahal izateko, eta desbentajan daudelako gainera, eta eskola kasu honetan bada konpentsatorioa, ez?

- Bai, 101ek hori esaten zidan, hizkuntza denei presentzia ematea ere garrantzitsua eta ezinbestekoa dela zeren horri esker, euskararekiko jarrera ere aldatu egiten da. Azkenean hauen ama-hizkuntza errespetatu, onartu, bisibilizazioa eman... egiten baldin baduzu, horrek ere haur hauek motibatu egiten ditu hizkuntzak ikastera, eta kasu honetan euskara ikastera.
- Bai, hori horrela da, azkenean, ez da negatu egiten dutela zurea, ez da nirea ona da eta zurea txarra; orduan horrela ez diozu amorrurik hartzen hizkuntza horri (kasu honetan euskarari).
- Bai horrela jarrera ere positiboa da bbien aldetik, *ni onartzen naute, nire hizkuntza onartzen dute eta nik ere besteak eta besteena onartuko dut.*

Bestalde, dena den, nire ustez, denok jakin beharko genuke zer dan hizkuntza bat 0tik hastea; hizkuntza bat ikasten zabiltzanien sentitzen zara super galduta, ezin komunikatu, ezin nahi duzuna adierazi, askotan ixildu egin behar lotsagatik...

Beraz, irakasleok behintzat, esperientzia hori bizitzea egia esan, beharrezkoa da; ondoren jakiteko haur hauek ere nola sentitzen diren une hauetan, enpatizatzekeo derrigorrezkoa dela iruditzen zait.

Gradu amaierako lana. Arabako Hezkuntza eta Kirol fakultatea.

Egia da, bakoitzaren erabakia dela eta noski, ez dela derrigorra, baina hori eginez gero, ziur nago, beste *feeling* eta beste enpatia batekin gerturatuko zarela haur horrengana; eta berak ere seguruenik beste konexio eta harreman bat sentituko du. ***Umeak bizi behar duena, besteok ere bizitzea maila batean behintzat, nahiz eta gauza bera ez izan.***